TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1 9 8 6.ko Apirila 15.z e n b.

''Baita komunean ere''



NON-ZER



2.- Berriak.
    Bortziri.
3.- Lesaka.
6.- Bera.
10.-Igantzi.
12.-Zubieta.
17.-Malaerreka.
18.-Etxalar.
    Arantza.
19.-Baztan.
    Otan ez!
20.-Adelantoaren firrila.
21.-Herriak eta hiriak.
24.-Elikadura.
26.-Pu-Pu!!
27.-Amaiur.
30.-Herrietako bizimodua.
32.-Otan?
    Geografia eta historia.
33.-Haur ipuin bat.
35.-Olerkiak.
    Bertsoak.
40.-Zergatik beratarrek ez dute gehiago
    parte hartzen herriko martxetan.
42.-Asmakizunak.
    Astotitzak.
43.-Droga hemen bizi da. (2.)

Azala: Juan Karlos Pikabea. Lesakarra.

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

Helbidea: Euskalduna ostatua.
BERA. NAFARROA.

BORTZIRI

URTARRILAREN 24EAN HASITA,ATXILOKETEN ISTORIOA.

Ortziralatik, larunbatarako gauean, Nafarroa osoan egindako redada batean, Narbarten eta Arantzan atxilotu zituzten Gregorio Mitxelena, Isabel Danboriena, Eugenia Ibarra eta Xabier Remon.

Gauerdiko ordu bat terdietan agertu ziren poliziak Ixa eta Gregorioren etxean, Arantzan. Lehendabizi etxea arakatu zuten, lekukoen aintzinean, legea hausten zuenik deus aurkitu ez zutelarik. Gregorio eraman zuten, Ixa eta bere zai hiru polizi etxean gelditu zirela. Bi orduren buruan, Ixa eramatera etorri ziren. Orduan herrikoek Gregorio ikusi zuten, eskuetan metraileta zeraman polizi baten aintzinean.

Hurrengo goizean Arantzako Herriko Etxean, Gobernadore Zibilarekin harremanetan jarri ziren, eta Gregorio eta Ixa, Bilbon zirela jakin zuten, "Ley antiterrorista" aplikatuta.

Eguerdian Herriko Etxeak aparteko pleno bat egin zuen eta puntu hauek akordatu: Aho batez erdaraz.

1. Gregorio Mitxelena Ordoki eta Ixabel Danboriena Danborienaren askatasuna, berehala eskatzea.

2. Baita exigitu ere, tortura erabiltzeko bideak errezten duen "Ley Antiterrorista" derogatzea.

3. Lege horren pean dauden egunetan, Gregorio eta Ixabeli gertatu diezaiekeen guztirena kargu egineraztea Nafarroako Gobernadore Zibilari.

4. Eskatu, atxilotuentzat, behin preso hartuz gero, pertsona guztiek duten eskubidea: deklarazioa abogatu baten aurrean egitea, alegia.

5. Exigitu, "Fuerzas de Seguridad" deritzanak, berehala kentzea.

6. Akordio hauek, Gobernadore Zibilari, Etxalarreko Udalari eta Prentsari jakineraztea.

Arratsaldeko 8retan, eta ordutik egunero egin den bezala, atxilotuen berri jakiteko, herri biltzarra egin zen. Etxalarren berdin.

8retan baita, Etxalarren, bertakoak 80ren bat lagun bildu zen herriko etxearen aterian eta alkatesari atxilotuez solasteko aparteko plenoa egitea eskatu zioten, alkatesak ezetz erantzun zuelarik. Etxalartarrek, "Eugenia, Xabi, Gregorio, Ixa askatu" paratzen zuen pankarta zintzilik jarri zuten. Hurrengo egunean, arratsaldeko 6retan berriz biltzeko gelditu ziren.

Igandean, arratsaldeko 7 1/2 etan, amnistiaren aldeko gestorak, bezperan, Baztan MaldaErreka eta Bortzirira egindako deiari erantzunez, 400 bat lagun bildu ziren, Lesakan, Guardia Zibil aunitz harathonat zebilelarik. Enparantzan biltzarra osatu zen, Arantzako alkateak eta zinegotzi batek, egoeraren berri eman zuten. Hasi eta segiduan Guardia Zibil talde bat, beren armak eskuetan, hurbildu ziren, biltzarrako lagun batzuk laisterka hasi zirela ikaratuta. Berehala biltzarrak lasaitasuna eskatu zuen, ekintza jarraituz. Nola, Bilboko poliziek ziotenez, atxilotuak, laurak ongi ziren.

Larunbatean, arratsaldeko 7 1/2 etan Altzateko Enparantzan, Baztan Bidasoatik etorritako 300 lagun bildu ziren, atxiloketak salatu eta errepresioaren aurka.



Herri biltzarrean, lehen berri eman zen, Gregorio Ixa, Eugenia eta Julio beren etxeetara itzuli zirela; Xabier Remon gartzelan gelditzen zela eta bere borondatez Basauritik Nanclaresera eramana, Eugenia eta etxekoak bera ikustera joanak zirela. Berri eman zen baita Arantzan, bezperan egindako Bortziriko alkateen bileran "Ley Antiterrorista" salatu ondoren, larunbatako manifestazioa sostengatzea apoiatzea erabakitzen zela eta trabarik ez izateko, Berako alkateak Gobernadore eta Guardia Zibilekin behar ziren gestioak egitea bere kontura hartu zituela, gestioen erantzuna ezezkoa izan zelarik. Bertan erabaki zen Enparantzan, manifestazioa ahal bazen herriko etxeraino eramatea, "Presoak kalera, amnistia osoa" "Xabier askatu" etab. ohiukatuz, ekintza normaltasunean joan zen. Legia kalean, Apeztegiako parean, Guardia Zibilak agertu ziren arte, jendea ikaratuta mendi aldera laisterka hasi zelarik. Guardia Zibi-

lak hortzetaraino armatuak, sakabanatzea agindu zuten, bertan biltzarrea eginen Herriko Etxeko enparantzan berriro elkartzea erabaki zen, berebiletara ailegatzeko ere, goardia zibilen aldetik traba handiak izan ziren. Herriko Etxeko enparantzan ez zen posible izan biltzarrea egitea, goardia zibilez hartua zegoelako.

Gazte baten galderari erantzunez, alkateak, Gobernadore Zibilak erran zioenez atxilotuak, lege hauste arrastoagatik salatzen dituzte.

Bitartean handik hogeienbat metrotara Goardia Zibilek beren armekin krixketa soinuetan aritu ziren, azkenean megafonoz, bereiztera deia egin zutelarik. Orduan zinegotzi eta bertako lagun batzu sargentoarekin solastu ondoren, goardia zibilen mehatxuaren berri ekarri zuten, kargatuko zutela alegia. Alejandro Ordokiren kasua aipatuz, errepresioaz mintzatu ondoren eta manifestazioa edo zer egin aztertuta, ekintza akabatzea erabaki zen; hori bai, kontuz ibiltzeko aholkua entzun ondotik, paisanoz jantzirik polizi sail bat zebilela eta.

Ixa, Eskoletan irakasle denez gero, Astelehen goizean, bortz herrietako Eskola Publiko eta ikastoletan, grebara joatea erabakitzen da. Arratsaldean, Lesakan, Bortziriko maisuek, karrikan barna manifestazio bat egin zuten, aintzinean pankarta zeramatela non "Atxilotuak askatu, lege antiterroristarik ez" paratzen zuen; musikaren kioskori lotuta utzi zuten. Ondoko egunetan egunero hiru terdietan bilera egin zuten eta egunkarietara oharra bidali.

Hala ere, deia egin zen, Lesakan 9retan biltzeko. Erran eta egin, nahiz eta lehen baino jende gutxiago, manifestazioa burutan ateri zen eta Eusko Gudariak kantatuta,

ETAren alde ohiukatuz bukatu.

LESAKA

✸ Lesakako Arkupeko, pilotazale elkarteak egunkari batean Herriko Etxeari zuzenduz, argitaratu duen eskutitzean honako hauek adierazten ditu, erdaraz.

Nafarroa osoan, 3.000 biztanle dituen herrian artean, Lesaka dela bakarrik, pilota leku egokiarik ez duena.

Kirola egiteko behar anitz badaudela, adibidez igerilekua argi dago baina azken hau urtean 3 hilabetez ez bertzerik erabiltzen da, ez honela pilotalekua urte osoan erabiltzen dena, jaildiak direla, bertsolariak, fulbito, eskubaloia, leku egokia baldin bazen profesionalen artean partiduak, etab. Horrengatik lehendabiziko beharra da hau.

Oraingo herri pilotalekua konpontzeko projektua baztertzea eta orain den parkearen zati bat hartuz, pilotalekua berri bat egiteko aholkua Herriko Etxeari ematen diote.

Honetarako motibo batzuk:

Oraingo pilotalekua arkitetura aldetik arront itsusia da eta gertatzen den bezala, txapaz ixten bada, ikusita non dagoen, herriaren erdi erdian, orain-dik itsusiagoa izanen da. Pilota leku berri bat egitea, inguruan loratègia eta aparkalekua dituela, egokiena lirateke, herria atseginez bizitzeko leku bat eginez.

Oraingo pilotalekua konpontzen, hamabi miloi gastatu eta hala ere ttikiegia geldituko zen. Pilota leku berria egitea 25 miloi inguruan kostako zen, baina ikusita Herriko Etxeak mailak badituela eta oraingo aldagelak probetxatzen ahal direla, agitzez merkeago izanen zen.

Hauek, arkupe elkarteak dionez.

Lesakako pilotalekuaz ari garela eta, erran behar ihauteritako ortzirala gauean, rok jaialdian erabilotako olanak, Astoputza taldeak akuratuak, norbaitek labanaz goitik behera ebaki zituela.

✸ ANTTON ERKIZIAK (lesakarra) Oreretako (Errenteriko) ipuinen 7. txapelketaren 2. saria irabazi du "Beti ttunttun gaittun gu", oilo zuri baten istorioarekin.



✸ Pepito Yanzi zenaren omenez, Musika Bandak meza eskeini zuen, joan den larunbatean Martxoak 1 Chopinen hileta martxa eta Pepitok egindako "Mozkorrenborda" jo zuen. Omenaldian ere parte hartu zuen Txistulari Eskolak, Santiago Irigoien zuzendaritzaren pean.

✸ E.A.B.a KALAXKA ELKARTEAN EGIN ZUEN BILERA. Bertan, gure zonaldean euskararen egoera larria adierazteko beharra ikusi zen, eta gai honetaz hitzaldi batzuk herrietan zehar antolatzea erabaki zen. Horrela, Igantzi, Etxalar, Lesaka eta Ittunen hitzaldi horiek eman dira jadanik. Beran berriz Martxoaren 20ean izanen da eta Donezteben eta Arantzan Kultur astearen barnean.

✸ Gipuzkoako Kross Txapelketan "Promesas" mailan, hirugarren ateri da Jesus Mª Calvo, lesakarra.

✸ Astoputza taldeak antolatuta Irain Eskoletan, larunbatetan 4 terdietan gazte biltzarreak egin dire. Gazteentzat leku egokia eskatzen dutelehen beharra bezala. Hona deia, herrian barrena zabaldu duten idatzia:"Zer zabiltza kalean, buruan dauzkazun ideiak pasiatzen? Gu gazteok, larunbatero elkartzen gara gure nahiak aintzinera eramateko asmoz.Zu ere geldirik egon beharrean, parte hartu! Denen artean egiten diren gauzak errazagoak izaten dira. Astoputza".

Baita talde honek, otsailak 7an rok jaialdia antolatu zuen herriko pilota lekuan. Jo zuten: leitzako INORk, irungo BALDIN BADAk eta Iruñeako TIJUANA IN BLUEk. Larunbatean, ihauteriak hasteko, NATOren aurka kalejira egin zuten. Ondotik afaria, 500 pezetatan.

✸ Beti Gazte-ren zuzendaritza aldatu da. Presidente berria Felix Egues dugu, bokalak: ziklismokoa Dionisio Arriola, futbolekoa Andoni Zamorano, atletismokoa Salvador Igantzi, kulturakoa Jokin Iturria eta Alfonso Obeso, Mendizaletasunean Isidro Saralegi, Idazkaria berriz Rafa Zamorano, diruzaina Rafael Irigoien eta kirolentzako koordinatzailea Javier Eneterreaga.

Erran behar baita, 1986 - rako 1.700.000 pztatako aurrekontua egin dela.

LESAKAKO UDALETXETIK:

● Frain auzokoek "Papelera Española" enpresak, Aldapatxutako bideetan egiten ari den kalteak salatu dituzte. Herriko Etxeak, enpresa honeri, pinuak eraman eta lana bukatzean, bidea konpontzea agindu dio.

● Biurrana auzokoek, hain zuzen Txarraltxiki, Ontxalenborda, Ilarza eta Arrupekobordakoek, baserrira indar elektrikoa eramateko, diru laguntza eskatzen dute. 17 milioi gostatzen diren lanentzako Nafar Gobernuako, Malon Jaunarekin solastea erabaki dute Herriko Etxean.

● Aritxulegin, suak eragindako 11 hektareetan, zurak probetxatzea eta landare berriak landatzea erabaki du. Gauza bera eginen du Lapurriturrin, han joan den urtean hormak igartutako landaketetan, hain zuzen Irungo Herriko Etxeak egindakoetan eta landare eta lur, Lesakako Herriari emanak izan direnetan.

● "Principe de Viana" erakundeak proposamena egin du, Lesakako Liburutegi berria egiten den bitartean, pertsona bat paratzea behin behineko lekuan, zerbitzuak eskeintzeko. Pertsona honen jornala, urterako hirurehun berrogeita hamasei pzta. erakundeak ordainduko duela eta Udalaren kontura izanen zen asegurua (60 mila pzta). Herriko etxeak erabaki duena: 1/Ados dagoela "Principe de Vianaren" proposamenarekin. 2/ Probak egitea behar den pertsona kontratatzeko. 3/Aurrekontuan sartzea urterako liburuak eta bulegorako gaiak erosteko 65 mila pzta; eta asegurua ordaintzeko be-

har den dirua.

●Udalak, Nafar Gobernuari eskatu dio oinarrizko zerbitzu soziala Lesakan ere izan dadin. Ia bada urte bat inguruko herrietan jaso dituzten etekinak, Lesakan ere izan daitezen hemendik aintzinera.

● ●

HERRIKO ETXEAK ALEJANDRO ORDOKIREN KASUZ HARTUTAKO AKORDIOAK:

ERDARAZ:

Herriko Etxe honek ezuste eta ezontza hartu dituela, Alejandro Ordoki Arrietari hasitako sumarioaren berri jakiteak, talde armatuen partaide delakoan, ezaguturik mutil honek herriarengandik duen estima eta gogoramena, hala ere bidegabekeriz detenitua. Hok denak direla eta, honako hau akordatzen du:

1.- Eskatu, Alejandro Ordokiri hasitako sumarioa, gelditzea segiduan, karguak gezurrazkoak direla kontuan hartzen duelako.

2.- Aipatutako sumarioa gelditzeko behar diren gestioak egitea, lehen bilera bat eskatuz Nafarroan Espainiako Gobernuaren ordezkariarekin, hitzaz hitz akordioa emateko.

3.- Akordioa notifikatu Nafarroako Gobernu Zibilari eta Madrileko Epaileari.

●Azken atxiloketak izan direla medio, honako hauek akordatu ditu: Julio Salinasen atxiloketa, baita Etxalar eta Arantzakoa salatzea. Berriro ere "Ley Antiterrorista" deuseztatzea eskatu. Egun haietan, karrikan guardia zibilak hartutako jokabidea salatu. "Fuerzas del Orden Publico" deritzanak alde egitea eskatu. Bandoa edatzea, biztanlei eskatuz, atxiloketa berriak gertatzen badire, berehala nahiz atxilotua bera edo lekukoak alkatearen bila joan ditezen, horrela alkatea bera, atxiloketa lekuan egon dadin. Ukapena adierazi, ostatuetan uniformatuak eta armatuak alkola duten edariak hartzen dabiltzen goardia zibilei. Arantzako udalarekin adostasun osoa adierazi, atxiloketaz hartu zituen akordioekin. Nafar Gobernu eta Parlamentuari akordio hauek adierazi.

●Apirilaren 6an, egin behar den Nafarroako Bertsolari Txapelketaren saioarentzat 30.000 pezeta, eta gelditzen den defizita ordaintzea erabaki du.

●Izan dire Lesakar batzu, idatzi bat Udalari bidali diotenak, bertako Ehizturi Elkarteak ehizirako puestoak hartzeko orduan bere sistema ezarriz, bereiskeriak egiten dituela. Udalak erantzun du, puestuak herri barrutia denez gero, lesakar guztiek eskubide ber-berak dituztela.

●Nahiz eta Erro, Alzugarai eta Portu zinegotziak, baimena eman baino lehen Nafar Gobernuako M.I.N.P.kin egotea gauza beharrezkoa ikusi, bertzeak berehala baietz eman diote, Laminazionesek egin nahi duen gaserako biltegiari. Lan hauek 25 milioi gostako dire.

●Alkaiagako bizilagunek berriro ere salatu dute harrobian egiten diren eztandak. Baita zaramaren zerbitzua eskatzen dute. Udalak, behar dituen dilijentziak egitea erabaki du.

●Bortziriko Eritegia dela eta, joan den Urrian, Berako Udalak, Lesakakoari idatzi bat bidali zion, erranez etzutela dirurik emanen eritegia egiteko gastuak beren kontura zirela. Honeri erantzunez, abenduaren 13an, Lesakako udalak Berakoari honela zioen: Eritegia ez dela Lesakako bakarrik, baizik eta Bortziriko; Berako Udalak 1986rako aurrekontuan, zentrorako behar zen dirua egokitu al izan zuela, Arantza eta Igantzikoek egin duten bezala; 3 milioi gastatu dituela lurrak erosten, baita bidai aunitz egin; nahiz eta Udalaren batek lagundu ez, eta eritegiak Bortzhiriko duen garrantzia ikusita, etxegintza burutan ateriko duela. Urtarrilaren 16an, Berako Herriko Etxeak aintzinako Lesakako idatziari erantzunez honela dio: Ez duela zalantzatan jartzen eritegiak duen garrantzia, baina ezin duela ordaindu bertze Herriko Etxe batek ordaindu behar dituenak, Nafarroako Gobernuak garbi utzi duen bezala, Lesakako Udalari, eritegiarako behar diren diru laguntzak, eman dioen ezkero.

✸ ✸

BERA

✸DONE JUAN BOSCOREN eguna ospatu zen, Berako Lanbide Eskolan Irakasleak ikasleen aurka (Mai suak ikasleen kontra) futbito partidua egin zuten eta irakasleak 8-3 irabazi. Ikaslea prestatutako kantak, antzerki eta komediak izan ziren ondotik, gehien bat irri egiteko, irakasleak imitatzen. Azken hauek ere, batez ere gazteenak, heuren numeroa egin zuten. Eguerdian hamaiketakora herriko irakasle guztiak gonbidatuz bukatu zen besta. Erran behar hau izan dela lehen aldia, berako eskola guztietatik xurrupa egiteko biltzen direla. Urrun gelditu da, Lanbide Eskolak egindako bidean, orain dela hemeratzi urte, 36 ikasleekin asiera hura, alondiga zaharrean. Hurrengo pausoa, etxe berria oraingo eskolari itxekitzea. Noiz nahi hasiko dire, baimena guztiak emanak bait daude.

✸"Plasticas del Bidasoa", Zubi Xabalen, Bidasoaren ertzean dagoen fabrika, orain dela bi urte berriro martxan jarri zen. Orain ia bete betean ari dire, hiru txandetan. 17 lagun, kontratu denboralekin, lanean ari dire bertan.

✸Heldu den ortzirala eta larunbatan, Martxoak 14 eta 15, Lizarrako ikastolatik, 4 garreneko ikasleak Berara etorri dire, euskal giroan, bi egun pasatzera. Baserrietan inkestak egin dituzte. Ortziralean, 4 garreneko ikasleen gurasoek afaria prestatu dizkiete, eta larunbatean, Lizarrako haurrak banatu dire eta Berako etxeetan bazkalduko dute. Laugarren urtea da hau, honelako bizikidetasunak egiten direla.



✸Gure Txokoaren bilera orokorra egin zen 40ren bat lagun bildu zirelarik. Aipatu zirenak: ostatuan ordaindu faltan 40.000 pzta. gelditu zirela; haurren jolas lekuan ordu batzuk paratu eta ireki eta etxi behar dela, ostatutik ibiltzen ez dela utzi behar 16 urte baino gazteagoak; Mª Carmen Telletxea eta Bernardo Barredok, biltegian lana egiteko izena eman zuten eta Felix Azpilaga da orain atletismoko saila hartzen duena. Azkenean solastu zena, Fermin Artieda, Iamotenako bizilaguna, argitu nahi dituela bi etxeen mugak non diren eta berekin solastea erabaki zen.

Diruaren kontuak hauek dire. Egin diren ekintzetan, 6.429.199 pzta. gastatu dire, sarrerak 6.652.995 pezetatakoa izan delarik. Superabita 223.796 pzta. Ostatuan irabaziak 345.498 pzta. Dantzetan ere irabaziak ateri dire, motorismoan berdin. Aldierantziz ekintza kulturaletan defizita izandu da, baita futbolean eta ziklismoan. Bertze sarrerekin kuota, bazkide berriak, interesak etab. 14,1 milio bildu dire. Irteerak 13,4 milioikoa izandu dire (etxearen erosketa, obrak etab.) Joan den urtean egindakoak aipatzan badugu, erran behar dugu: Argazki ikastaroa (fotografia kurtsiloa), tapiz ikastaroa, pintura lehiaketa, erakusketak, Bertso paper lehiaketa, Aste kulturala, Bertsolari Eskola. Pilota jokua eta ziklismoa bultzatu dire, eta futboleko 3 ekipo jolastu dire.



✸BERAKO BARIANTEA. Berri garrantzitsua dugu hau eta noski gure herriarentzat hagitz ondorio onerako. "Eragin Plana" deitzen zaion, Nafar Gobernuak aginduta bariantearen arazoari irterabidea emateko, estudioen emaitza prest dago. Lurran sondeoak eginta ondoren, tunela, ematen da irterabide egokiena bezala. Tunelak 400 metro izanen zituen. Projektua Herriko Etxean dago eta agudo denak ikusteko moduan izanen da.

✱AGERRAKO BLOKEETAKO AUZOKOEK, Asanblada egin zuten 34 lagun bildu zirelarik. Hona hemen solastu ziren gaiak eta hartu zituzten erabakiak:

Lehendabizi, Herriko Etxeak. Chantrerekin egindako akordioaren berri eman zen, eta nola auzokoekin solastu gabe, auzoa entregatu duen.

Herriko Etxea judiziora eramatea solastu zen, baita honela hasiz gero, problema agitz luzatuko zela ikusita, Herriko Etxeak Chantrerekin egindakoa onezko hartu zen. Hauek dire Chantrek hirigintza egitean bete ez zituenagatik, auzoaren onerako gelditu direnak: Almakoko goiko biltegian bi aldetara pasabidea, eta etxeen mendi aldera gutti gora behera 6000 metro kuadro berdegunerako.

Asanblada honetan ere, irakina egin zen, Chantrek harrobian egiten dituen leherketekin etxeak dardarka jartzen dituela.

✱Jose Antonio Garbisu, Kotte Eltzaurdia eta Felix Unsion, Berako kirolekin zer ikusi haundia duten pertsonaiak dire. Astelehenero Donostiara joaten dire gazteen futboleko gertalari ikasteko. Kurtsoa Irailan hasia da eta Ekaina arte irauten du. Arratsaldez 3 1/2 etatik 9tara, psikopedagogia, kirol medizina, jokalegeak, hezik eta fisikoa, teknika banaka eta elkarrekin ikasten dute. Irakasleen artean, Etxebarren sendagilea dute, Realaren mediku famatua. Kurtsu hau, Gipuzkoako Futboleko Federakundeak antolatua da.

✱FRIBURGO, Alemaniaren egoaldetik, bikote bat (mutila eta neska), asto batekin, Saratik heldu zirela, Beran barna pasatu ziren. Larruzko jantziak zeramaten, astoaren gainean motxila eta trastoak; dendan piku idor batzu eta ogia erosten ari zirela, beurekin solastu ginen. Urriaren 19an ateri omen ziren Friburgotik eta oinez joan behar dute, lehen Compostelara eta handik Portugalera. Eguberria Donapaleun igaro omen zuten, frantziskotarren komentuan. Han gogoratu zitzaien astoa erostea, iaketa horraraino motxilak bizkarrean ekarri bait zituzten, azkenean bizkarra minberatua zutelarik; astoa bada, euskalduna zela eta, euskaldunak bezala kaxkagogorra zela irriz zioten. Astoak bide bazterretako bazkak jaten zituen; gasolina gastatzeko lanarik ez; bidaiatzeko modu merkea, ezta? Hantxe joan ziren Tolosa aldera!.

✱"Ricardo Baroja" ikastetxea eta Tokiona futbol zelaiaren tartetik pasatzen den bidea, hemendik aintzinera oinezkoentzat bakarrik eta atsenaldi lekua izanen da. Honela erabaki du Nafar Gobernuaren Hirigintzako Batzordeak (Urbanismo komisioneak). Hainbertze tirabira izan duen arazo honen bukaera zoriontsua jakin ondoren, ikastetxe honen zenbat berritxo emanen dugu: Obratan, milioi bat zortzirehun eta hogeitamabortz mila pezeta gastatu direla, Nafar Gobernuak ehuneko 70rra, eta Herriko Etxeak ondarra ordaindu dutelarik. Egin diren lanak: jangelaren lurra eta sarrerako sabaia berritu, pilareak borobildu eta dena pintatu. Erran behar baita, bideo eta ordenadore bat estreinatu dituztela. Projektuan dituztenak, hauetxek: pilota lekua denean estaltzea, ikastola eta eskola tartean dagoen patioa hartuz, gimnasiorako lekua, larrialditako eskailera eta megafonia. Projektuan dute baita, 6 ordenadore berri paratzea, honela informatiko eskolak irakasteko.

✱GURE TXOKOA DANTZA TALDEA, Jaione Dozagarat, Mikel Iturria eta Antonio Rodriguez "Txarra" ren eskutik, taldea berritzeko lanetan gogor ari dire. Larunbatetan, 140 haurrei, Ipurdidantza, Makildantza eta Ingurutxoa irakasten diete. Ortzirala gauean ere helduekin aritzen dire, Luzaideko eta Sorgindantzetan. "Caldereros", baita Inudek eta Artzaiak ere entsaioak antolatu dituzte . Bidaietan ere badabiltza, orain dela gutti Tuterara, dantzari ttiki egunean.

BERAN, MENDIZALE TALDE ERRI BAT DUGU, eta Larun" izena hartu du. iru urte bada hasi zi-ela, igandero goizeko ederatziretan ateriz, errogei lagun eta gehi-go elkarturik.

Ibilaldi haunitz egin ute dagoeneko, eta be-en oroimenetan daude, dibidez Intzola, Men-aur, Elizondo, Haika-ri, Txindoki, etab.

Talde irekia izan da eti, nahi duen guztia-entzat, haur eta larri, aina ez haurtzaindegi at.

Bidaietan, naturaren-zako esnatuz, berori aitatzen ikasten da, denak ekologistak bihur-tuz, eta beti euskara dela medio eta lotura, euskaraz biziz, euskara aitatuz.

Bitxikeri bat: Haurrak lehendabian etzuten joan nahi izaten, baina orain ohitura hartu dutela, igande goizero ziztu osoan jeikitzen dire. Gurasoak ere gogoz ate-ratzen dire, zihur ja-kinez, atsedenaldi egun bat espero dutela.

Hasiera batean, ibi-laldi laburrak egiten ziren, baina orain hau-rrek bide luzeak egin nahiago dituzte, honek ere federakundera abia-tzeko suposatu zuen.

Haurrak eta gurasoak mendian elkarrekin, iza-ten dute posible harre-man polita bat, agitz beharrezkoa bestaldetik, astean zehar beti presa-ka ibiltzen garenez gero

Adibidez, maldetan haurrak ohartzen dire, beren gurasoak baino a-rinego ibiltzen direla. Ikusten dute gurasoak ez direla hutsezinezko-ak, honela gurasoak pix-kanaka pixkanaka deside-alizatuz, beren buruakin konfidantza gehiago hartzen dute.

Federakundeak finkota-suna ematen du, aterpe-tan eta trenbidetan a-bantailak, baita ski le-kuetan, aseguroa, etab.

Haurrak urterako 500 pzta. ordaindu behar du-te, eta larriak berriz 1.400 pzta.

Federakundeak irakus-ten du baita, bazkaltze-ko eta, leku egokiak.

Federatzeko arduradun finkoak autatu izan be-har dira, baita estatutu berriak onartu, nahiz hasiera batean ikastola bezala jarraitu nahi ba-zen ere.

"Pirenaika" aldizkaria hartuko dute baita.

Helburua dute talde handi bat egitea, auto-busean ibiltzeko, bere-bilekin harathonatak kentzeagatik.

Elkarte honen bertze abantaila haundia da, talde bezala, behar ba-da badutela noiznahi e-gitea edozein ekintza soziala.

Joan den igandean, Urtarrilak 5, Gure Txo-koan banatu ziren, Olen-tzero, Haur Margolari eta Ipuin Txapelketen sariak. Egintza erraza batean, gurasoen begira-da lasaiez eta txaloen artean, haurrek banan banan beren sariak hartu zituzten antolatzaileen eskuetatik. Sarituak izandu ziren ipuiak han bertan, egileak heurek irakurri zituzten.

Hona hemen sarituen zerrenda:

IPUI TXAPELKETAN

9 urte arte:

Lehen. Ainhoa Irazoki Zubieta. 9 urte "Basoko animaliak"

Bigarren. Josu zelaieta Alzuri. 7 urte. "Txori bat ezin zuela abestu"

Akzesit. Asier Saragüe ta. 7 urte. "Gizona eta Xagua"

Ander Alzuri Astondoa. 8 urte. "Marteko Xagua"

10 11 urte

Lehen. Oskia Baraibar Telletxea. Lesa karra. 10 urte. "Eguberriko Gertakizuna"

Bigarren. Anabel Arbu-rua Olagarai. Etxalarkoa. 10 urte. "Basoan Galduta"

Akzesit. Bernardo Ba rredo Telle txea. 10 urte. "Ziklista eta Txirrindu-la"

Jon Abril Olae-txea. 10 urte. "Ipuin bat ala bi"

12 14 urtekoak

Sari Bakarra. Jaione Iraola Rozas. 12 urte. "Ipurbeltz batean sar-tzen naiz"

Erran behar baita, 163 ipuin presentatu zirela.

MARGO LEHIAKETAN

Lehen maila:

Lehen.- Gabriel Unsion Berakoa.

Bigarren.- Asier Aranguren. Lesakarra.

Bigarren maila:

Lehen.- Iñigo Rodriguez. Lesakarra.

Bigarren.- Karmelo Rekondo. Lesakarra.

Hirugarren maila:

Lehen.- Egoitz Agirre. Berakoa.

Bigarrena.- Amaia Pardo. Beratarra.

BERAKO UDALETXETIK:

✸Herriko Etxeak Nafar Gobernuari, herriko zenbait behar betetzeko diru laguntza eskatu dio: ur gordailu berri baterako, hirurogeita hiru milioi, kolektolerako 2 milioi; Legian asfaltadua egiteko; Matzadan aparkalekuarentzat, Lanbide Eskola 2 eta Polikiroldegiarentzako lurrak erosi eta inguruko zerbitzuak egokitzeko. Bada espero, ehuneko 50 edo 60 emanen dutela.

✸Herriko etxeak, etxe berriak egiteko eta zaharrak berritzeko baimen sail bat eman du: Miguel Artiedak, Legian etxea berritu nahi du eta 2 bizitza egin, Udalari ehunta berrogeitamar mila pezeta ordaindu beharko du; Jesus Tapia Ameztoiek "Ansorenea" (Foru Enparantzan) berritzeko, 646.000 pzta. ordaindu beharko du; Luziano Berasategik, bizitza bakarreko etxea, Txolinen egin nahi duela eta, 204 mila pezeta ordaindu beharra izanen du; Miguel Martinezek, Zalainen zerrategia egin behar duela eta, 220.000 pezeta ordaindu behar du; Andres Sanchez Amadozek Zalainen kamioiak konpontzeko zutoiartea egiteko zazpirehun hirurogeita bortz mila pezeta ordaindu beharko du. Franzisko Salazarrek, Olan bizitza egin nahi du, baina arazoa estudiora gelditu da.

✸ Andoaingo Udaletxetik etorri da idazkia, Eusko Jaurlaritzari eskaria egiten Euskalerriko Ziklista bueltarako, informazioa euskaraz emateko, bederen ehuneko 50 ean. Eskari hau Eusko Jaurlaritzari egiten zaio, bera antolatzailea delako, eta duen dirua denen poltsatik ateratzen denez gero, euskaraz informazioa jasotzeko eskubidea guria dela, erranez. Berako Udala ados denez gero eskaria firmatu du.

✸Naiz eta astelehena izan ihauteri eguna, besta Beran, Alcon lana egin zuten. San Esteban eguna aurten igandean tokatzen dela eta, bazegoen lanerako edozein egun batean besta egitea. Alcon, batzuk ihauteri astelehena nahi zuten; bertze batzuk berriz, Abenduaren 24a, Gabon Eguna, egun honetan hasi eta urte bukaeran oporra ttiki batzuk hartzeko. Botazioak egin ziren eta diferentzia ttikiagatik azken aipatutakoak irabazi zuten.

Alcoz ari garela eta, erran behar orain dela urte batzuk konbenioa egin zuela, urteroko prezioen igoera baina, jornala 2 puntu gehiago igotzea.
Jubilatuak ateri dire, baina, toki guztietakoa hemen ere, ez dire beren lanpostua betetzeko langile berririk sartu. Gertagarriak sei hilabeterako, hiru hasi dire eta agudo bertze hiru etorriko dire. Erran behar ere zonaldekoak ez direla.

✸Arantzako eta Etxalarreko Herriko Etxeak egin duten bezala, Berakoak ere, aho batez, "Ley Antiterrorista" deuseztatzea eskatu du, gizakiaren eskubideak errespetatzen ez duelako. Baina onartu ez duena izandu da: "Fuerzas de Seguridad" deritzanak, alde egiteko eskatzea, zeren nahiz eta Zelaieta eta Agerri zinegotzien botua baiezkoa izan; Larralde, Garro eta Senper abstenitu; Vila, Lasarte eta Alkatearen botuak etzezkoak izan direlako.

✸HIRIGINTZ ARAUTEGIA ONARTUA DAGO. Honekin batera plazako errentak baita. Hasiera batean arront garestiak baldin baziren, hirigunean batez ere, ahal den guztia merkatzera saiatu dire. Baratze babestuak deitzen direnak, 500 pzta. urterako, metro kuadro bakoitzagatik ordaindu beharko dute. Industri zonan berriz, 1.050 pzta Herrian 2.000 pzta. Heldu den urterako baserri eta mendiko errentak prest izanen dire. Lizuniagan zer egin oraindik airean dago, erabakia Herriko Etxearen eskuetan dagoelarik, lurren ehuneko 60 komunalak direnez gero.

IGANTZI



KRISTOREN MARTXA !

●Astelehenean "gaurko gazteen" eguna antolatu zuten. Egunero bezala kristoren euri tartean jeiki ginen, hala ere kiroletan parte hartzeko prestatu ziren eta, 8 taldetan banatuz, lau kiroletan aritu ziren: futbito, aizkolariak, korrikalariak eta sokatira. Egia erran, ez genekien han zirenak, Bakero, Mindegia hala herriko gazteak ziren. Ondotik indarra hartzeko, denok elkartera bazkaltzera, eta joko berezi bat, "Jinkana" egin ondoren, partaide bakotzari diploma bat eman zioten. Diplomak hau zion: "Diploma honekin zuen parte hartzea egun honetan eskertu nahi dizuegu. Baina ez genuke hemen gelditu behar,lan asko egin beharra bada eta badugu aberastasun handi bat; gazteak gara eta euskal gazteak zain dezagun gure euskal etorkizuna. Aurrera¡"

Aste kulturala. Herriko gazte talde bat (gazteen artean gazteena), aste kulturala antolatzeko elkartu zen. Indar berriak eta lana egiteko gogoarekin. Zer itxaropena!

Hilbeltzaren 3an ostirala, arratsaldeko 6etan hitzaldi bat emateko asmoa zen, baina " Euskararen Aldeko Batzordeko" partaideak ez ziren azaldu. Hasiera txarra, gogo handiak zeuden hitzaldi hau entzuteko, gai oso interesgarria zelako, lege honek sortu dituen eztabaidengatik. Pelikula bat eskeini zuten ondotik, "Expreso de media noche" delakoa, berrogei bat lagun bilduz.

Larunbatean "biharko gazteen" eguna izan zen. Goizean jokoak plazan izan ziren eta arratsaldez txontxongilo bat aurkeztu zuten herriko gazteek, eta nahiz eta lehendabiziko aldia izan oso ongi atera zitzaien. Haurrentzako pelikula batekin eguna bukatu zen.

Igandean "atzoko gazteen" eguna izan zen. Eguna oso beltza agertu zen eta, euria eta kazkabar erasoengatik, pilota partidua ez zen jokatu, baina zaharrek ez zuten humore ona galdu eta hirurogeiren bat lagun biltoki elkartera joan ziren bazkaltzera. Han izugarrizko giroa sortu zuten bertsolariek. Lazkao Txiki, Mitxelenak eta Josetxo Iantzik hain zuzen.

●ESKOLA. Herriko eskolak moldatzeko ari dira eta aurrekontua bosten bat miloitakoa da. Moldaketa honekin bi gela berri izanen ditu eskolak. Horretaz aparte berogailu berria, eskola guztian jarriko dute. Haur gaixoak hau eta gehiago merezi dute, negu gogor hauek pasatzeko.

Aditu dugunez, moldaketa gehiago izanen dira herrian, herria garbitzeko lanak ere orain egin behar dituzte. Politikoek esaten dutenez, hauteskunde aintzina momentu egokiena omen da, gauza berriak egiteko eta lau urteko arazoak edo borrokak ahazteko.

Beno, kritikatik aparte, herriko tuberiak moldatzea eta ura eta kaka banatzea nahiko interesgarria iruditzen zaigu, geure burua ekologista bezala ikusiz gero. Aurrera lanekin, baina ez ahaztu zaborrak eta errekako arazoak, oraindik hor gelditzen direla.

Axterix

ITUREN

Bai! Aspalditxo erran ziguten berriak bidali behar genituela, baina guk ez bidaltzen, nola? Lanpetuak ibili bait gara. Ezertarako denborarik gabe. Hau mixeria! Herri txikitan ere stresa edo hori sartzen hasi bait zaigu.

Alfabetatzeko klasetan behin eta berriz Ionek erran digu idazteko. Baina, guk beti erantzun bera: noiz? Goizean jeiki eta etxeko lanak ez badira ondokoarenak egiten aritzen gara, gero bazkaria prestatu, korrika batean jan, lanera joan, lanetik etorri afari mokadua egin eta lasterka gaueskolara. Etxera orduko gaueko 11ak dira eta erraten duguna noizbait ere lo egin beharko dugu ba? Eta horrela bizi garela, gehiegi ez?

Egia erran ikasgelan ere idazten ahal genuen. Baina, zer gertatu da ba azken boladan? Horrela gertatu, gertatu... ba ezer gutxi. Ño! ez gara ba hasiko Jose Inaziori gertatu zaiona kontatzen. Gizarajoa! Nahiko lan badu bere hanka hautsiarekin.

Beno bada, gutxienez eta hasteko berri zaharrak kontatuko ditugu.

86KO IHAUTERITAKO "BOOM"

Gauza berezi bat kontatuko dugu, merezi bait du.

Argazkia ez da hain ona, hobeto atera izan balitz... Baina , une horretan ez zen beste aukerarik izan eta horrexekin konformatu behar. Hala ere, hor dago hori, gero!

Izan ere, azken urte hauetan, goizaldera emakumezkook joariak paratu izan ditugu, eta herriari buelta eman ere; baina beti goizaldera badaezpada ere, sobera ausartu gabe. Batak bestea animatuz, joariak paratu eta gainera jo. Nola? Ahal zen modura baina, guk jo egiten genituen. Joariak paratzeko orduan, gizonezkoek lagundu izan digute, orain-dik ez jakinki lan hori egiten eta. Behin baino gehiagotan Oxokin berak paratu izan dizkigu.

Beno ba aurten zera, igande arratsaldean eta afal antzinean atera behar genuela pentsatu eta hortan gelditu ginen. Horrela, sei emakume elkartu, joariak paratu eta pausoa hartuz aritu eta aritu ginen. Gure joarien soinua nahiko sendoa eta indartsua sentitu genuenean karrikara ateratzea erabaki genuen. Herriari bueltaxka bat ematera. Euria ari zuen goittibehetti, e rauntsi handienean gu karrikara. Bildurrik gabe. Gerriak ongi segurtuak, indarra gure barnean, burua altxa eta hor goaz. Besoak eroriak, isipua eskuineko eskuan, zilintzika, pausoa eramanez... Dumba! Dumba!

Dumba! Gorputza utzia eta eman!... Euria!... Um!...

Hasaieran, joariak paratu berrian, denok galdera bera egin genuen:"Jotzen al dut?" Besteekin aritzean ez bait da norberarena entzuten eta nolabaiteko bildurra edo intseguritatea eta, "jotzen ari ote naiz" kezka.

Karrikan jarraitu genduen, plazan sartu, frontoi aldera Dumba! Dumba! Dumba! handi bat besterik ez zen entzuten. Herritarrak joariak entzutera tabernatik atera eta guzti egin ziren. Herrikoetxeko estalpetik berriz, euritakoak zabaldu eta jendea plazarantz.

JOALDUNAK!
JOALDUNAK DIRA!

AURTIZ. Berri hau, ez da batere atsegina egia erran. Izan ere, Matxandiko etxeak su hartu bait du. Martxoaren hasieran gertatu da eta gaueko 10ak aldera.

Etxe barrukoak ohartu zirenerako sabaiko belarrak sutan. Ahal zen bezain agudo jendea mogitu zen. Suhiltzaileak deitu, etorri ziren eta bazter guztiak uraz blai utzi arte aritu. Baina, ordurako suak bere kaltea egina zeukan.

Matxandi erre egin zaigu!!!

Hain etxe ederra, hain handia eta...lastima!

Ondorengo egunetan, barrideko jendeak ere lagunduz, suak utzitako zaborrak eta garbitzen aritu dira. Ederki kostatuko da konpondu eta ongi paratzea!

Matxandi, labrantza etxea da eta Aurtiz apaina eta ederra izanik laguntzaren bat mereziko luke bada. Honelako kasutan Diputazioneak ez ote du laguntzarik ematen?

Aurtizko Ihauteriak.

ZUBIETA

TXARANGA.-

Malda-Errekan txaranga egiteko asmoa sortu da. Idei hau bi neskeri gogoratu zitzaien eta pixkan pixkan zabalduz joan zen jende gehiago apuntatzeko, aipatzekoa da, exito handia izan zuela OTANi buruzko hitzaldiaren egunean. Han genuen asmoa aipatu zen, nonbait apuntatu nahi bazuen eta hamabost egunen burura beste bilera egiteko gelditu ginen. Egun horretan jende asko apuntatu zen gehientsuenak Elgorriagatarrak zirelarik.

Oraindik ere bada koxka batzu. Ze instrumento jo? Nola erosi? Nola ikasi deus jotzen ez dakigula? Basaburuan bada kondizio beretan hasi zen txaranga bat eta haiekin egon beharrak gera jakiteko zer egin zuten eta nola hasi ziren. Instrumentoak txaranga erretiratu bati erosi beharko dizkiogu, berriak erosteko garestia aterako da eta ahal bada diru laguntzaren bat eskatu herri hauei. Instrumentoak jotzen ikasteko Diputazioari eskatuko diogu irakasle bat (Basaburukoak egin zuten bezala) lehenean.

Ondoren eta pixkanaka gureak hobetuz joanen gara. Lan zaila izanen da, baina eginez gero, badugu herri hauetako bestetan soinua bukatzen denean zer egina.

ONDORIOA.

● Gure Iñaki gizarajoa eri dago!! Bai, hanka lotuta dauka. Jakina! ihauterietan mahaian daudenean aisa edaten dugu eta xutitzekin hanka non paratzen dugun ezin ikusi!.

Gehiexkoenak berarekin ditu. Bere hankekin eta eskuekin kristoren lanak izaten ditu: batzutan hanka arraka duela eta eskua purrakatua bestetan Zer aritzen gera, Iñaki? harriei ostikoka ala? Zerbait egin beharra dugu herritarrak; "armaduraren" bat erosi edo zer edo zer! eta okerrena da horrela zaudela kristoren gripea bildu duzula. Dena bateân! Ai Iñaki ez gara denbora batean bezalako ak zahartzen hasi gara.

● Munduan ideia txarreko pertsonak izaten dira eta Zubietan izandu dira hauetako batzu. Zubietako "maistraren" etxean sartu eta dena urrabanatu eta buruz behera paratu ondoren paretan paper batetan lau hitz jarri zioten. Zehazki zer paratzen zuen ez dakigu baina sexu kontua da dena. Zer esan beharra dauka! Ikusten da hori egin dutenak besteen bizia ez dutela errespetatzen eta ez dietela besteei kalte egin nahi besterik! Noiz hasiko ote gara pertsonak bezala bizitzen! Hori baino beste egiteko hobeagoarik ez dugu izanen noski!. Zer egin ez badakizue errekan "txipi txapak" egiteko nahiko harri izaten da!.



● Beste norbait ere izandu zen Zubietako alkatearen kotxea ebatsi zuena. Zubietan piztu eta Ituneraino. Han ezin jarraitu kotxea gelditu egin zitzaion eta. Eta hori kable bat askatu zitzaiolako kotxeari; Lapurra ohartu izan balitz jabeak kotxe horren berririk ez zuen izanen.

Lapurrak "autostop" egiteko gogorik ez zuen izanen eta Errandoneako atarian kotxea giltzekin ikustean, kotxe publikoa zela ta, barruan sartu eta ¡Aurrera! TAXI izanen balitz bezela. Hori gogorazioak izaten ditu jendeak! Beharrik kablea lixatu...!!

TANKEA.

● Noiz behinka karretera honetan Seat 1500 familiar berde bat ikusten da, zeini "tankea" deitzen diogun batzuk, "Brujua" besteek eta karrika guztiak soinuz eta kez beterik uzten dituena. Urrundik halako ziztoan heldu denean bere diesel soinu eta bere mutur zabalez badirudi osoosorik jan behar gaituela; ondotik pasatu eta ikustean atzetik ke zikina botatzen duela dirudi "jodete kabron" esaten duela dirudi. Ba herria kejo dago soinu eta ke besterik ez duela ateratzen baina benetan kotxea oso sinpatikoa da, egunero jabea agurtzen omen du arrankatzen duenean irri polit bat botatzen omen dio.

ZUBIETAKO IÑOTIK

Aurtengoak ere joan dira.

Lasaitu zaigu Pentako Isabel. Ongi pasa ote du? Dudik gabe!

Gazteak bere juergak egin dituzte, jan, edan,edan,... eta edan,... dantzatu, gogotzen zaien momentuan joariak paratu, eta herri guztia bulunbatu...

Txolaren errestuak desagertu dira ez azkenengo janaldirik gabe eta nahiz tximini aurreko losak beltzatuak egon euriak garbitu arte, eguneroko normalitatean sartu gara...

Zer gelditu da? Zuentzat ez dakit... Neretzat bizpahiru gauza, ondo pasatzea uzten dituzten ondoriotatik aparte,... KOF,KOF,...

Lehenengoa, nola ez, zubietarrak ittundarrak baino katxonduagoak garela.

Ez nuke nik esango Zubitako zahar bat edo besteren modura, ittundar guziak ergelak direnik. Ez!, horiez!... Badira Ittunen zubitar odolak!

Ongi dakit, kasualitatez enteratu bait naiz, ittundarrentzat zubitar denak asto batzuk besterik ez garela. Gezurra galanta. Hara hor aurtiztarrak, txiki eta finak!

Bainan ez gara mendetako bataila horretan geratuko. Argi eta garbi dagoena, zientifikoki demostratua, zera da, zubitarren karrozak askoz ere hobeagoak direla, konpletuagoak, osoagoak. Zubitan bi aldetara begiratzen da: hala tradizioa aldera sorginak eta lehen egiten ziren lanak, nola aurrerakuntzera teletabarra, elektrogailuak. Noski, herri txikia da eta, horregatik, eskubide gutxikoa, horrela teletabarrako "Vespakar" gixarajua Aurtizaino bakarrik ailegatu zen, baina, zein kamara ederrak! Antenak, ezetera, ezetera... Eta hau dena ez dago gure burua arrotzeko asmoz idatzia, ez. Datorren urteko DESAPIO bezala baizik... Ittundarrak, jateko bai, hortarako elkartzen dira, baina ez karrutxo bat edo bi egiteko.

Bainan ez ittundarrak bakarrik, zubitarrak ere badugu, Zubitan bertan, zer ikasi. Lehen Pentako Isabel aipatu dugu; bere iñotetako zerako zera. Orain Etxeberriko Tomasena azaldu beharko.

Mundu guztian famatu ez herrian bezainbeste bere larrazama urterokoagatik: nork ez ditu bere arantzak sumatu, edo bere erraustsak probatu. Ba, tipoa hain errespontsablea dugu, hain barruratu du bere papera ezen, aurten, bere burua holako lanetan gauza ez zela ikusi zuenean, morroi bat hartu zuela. JO ETA KE, Zubietan larra PRESENTE!

Eta katxondeo arloan jarraituz, zer esan labadorataz (garbigailua) edo

txolako jendeak sortzen duen girotaz?

Bainan ez da dena hor amaitzen... Zubieta esaten bada, ia derrigorrezkoa dugu TARTAMUDO esan. Zoritxarrez?...Zorionez?... Aurten jubilazioa kobratzen duela eta diruakin zer egin ez dakiela, mundu zabalaren aurrean bere dezafioa bota zuen: ahari apostua... Artzaia izanda, bere artalde zoragarritik bi ahari gorde ditu,... bueno, egia esateko bata, SPAGETI, bere hilobak ekarria da eta, besta Elamenetik erosia... Bigarren hau izan zen plazara atera zuena... Aurreko bi edo hiru egunak, tabernaz taberna pasa zituen, Zubitan alde diru apostuz... bere estilo sekretuan... eta munduko prentsalari onenak ez du zenbat jokatu zuen jakitea lortuko... Eguna ailegatzen da, iñotitako hirugarrena, eta hor agertzen dira plazara, ahariak eta, batez ere , ahari jabeak... Galdu,... galdu dugu zubitarrok... Datorren urteko aharik baztertu eta jabeak aritzea dute!

Gazteak kontent, aizu! janedan ugari eta nahiko merke lortu dute. Bakarren bateri okurritu zitzaion herriko jendeentzat bazkariak ematera kobratuz, noski eta izugarrizko exitua.

Baina ez da, zoritxarrez, dena ona izan. LASTIMA! Eta nondik etorri behar desgrazia eta ikastoletatik... Aspaldi hasi ziren, poliki, banaka, etortzen,... bainan aurtengoa pasada bat izan da: gehiegi, sobera, larregi... barbaridade bat. Batzuk zortzi zirela esaten dute, hamar eta hamabiraino igotzen direnak ere badira, AUTOBUSAK,... eta bakoitzatik kriston haur pila, maestrak, txoferrak,... Orain fotografoak, telebistak, irratietakoak,... gutxi balira bezala,... Euskalherriko haurjendairak.

Zer esango dugu horretaz? Ez du importa eliza atariko loreak puskatzea, herria zikinkeriz betetzea eta errotako kanala enborrez, ezpalaz eta plast - koz estaltzea ,ez... Okerrena da, aingerutxoak, herria berea zela uste zutela eta karroien gainean, joaldunen eta mozorroen atzetik zebiltzatela eta ...holako batean batek min hartu - mozorro batek nahigabean edo malaletxean eginda, eta hara nola sumintzen zaigun "andereñoa" eta alkatearengana jotzen du erresponsabilitatearen bila.....KAKA! Zubita ez da Lanz eta zubietarrok ez dugu LANZe horretan erori nahi.

●Egiazko eztaia inoxente egunean. Hona hemen non agertzen zaigun egia gertatu zela gure Joxe Antonioren boda inoxente egunean; hau zela eta egun ederra pasatzeko aukera izan genuen.

Ezkondu ondoren, ezkonkideak, bidaia egiteko asmoz, Pirineo aldera edo abiatu ziren, baita laister herrira itzuli ere, Joxe Antoniok ihauteriak prestatu behar bait zituen. Eta oraingoak ere harriturik utzi gintuen, trastekeriren bat egin beharrean joareak paratu zituenean, baina gero konturatu ginen ezkonduta formalizatu egin dela edo behar bada andreak formalizatu.

●Antzerkia: "Migaren ordaina".

Alfabetatze taldekoak, lehendabiziko gora beherak pasatu ondoren antzerki talde bat egitea pentsatu genuen eta horrela eskolako umeei ikuskizun bat eskeintzea. Bestalde haur hauek, jostaketak, gozokiak, zalapartak, umeren irudimen sormengarriaz aparte ez daukate aukeratzeko posibilitate askorik. Gu berriz, antzerkia eginez pixka bat ume sentitu ginen. Gai bila hasi eta ondarrean, utzi ziguten ipuin bat. Eszenifikatzeko prestatu eta zenbait saio egin ondoren, eguna hautatu eta kartel deitzaleak paratu genituen. Eguna ailegatu zen eta gu urduri baino urduriago, hortzak KLIKKLAK, KLIKKLAK...Baina hori hasieran bakarrik izan zen; akats batzuk egin genituen eta aurrera amaitu arte.

Haurrak eta handiak ere zorionak eman zizkiguten. Baina ez da dena hemen bukatzen. Zeren eta hilbeltzaren 19an, umeek heurek asmatutako espektakulo bat eskeini bait ziguten. Herriko estalpen egin zuten. Arrunt polita izan zen, txisteak, ipuin txiki bat eta bukatzeko "Rok Gogorra". Ikusten duzuen bezala, martxa honek aurrera jarraituko duela dirudi.

MALDA ERREKA

● MALDAERREKA OTANen aurka. Ba bai, estatu mailan baietzak irabazi arren, Maldaerrekak, Nafarroak, Hego Euskadik OTANi ezetz esan dio eta horri ezingo diote bueltarik eman. Ez alajainetan!

Maldaerrekakook ezetza bi modutara adierazi dugu. Alde batetik, bizikletaz ibilaldi bat antolatuz eta herriz herri trikitixakin kalegirak eginez, ezetz eta ez dugula OTANean egon nahi adieraziz, eta bestetik ba botatzera joanez."NO" botoa ematerakoan hain zuzen ere. Baina, zer nolako irainketa? Ez dakite nola izurratu, nola nahasi, zirikatu herri hau eta...azken orduan euskarari egin dioten "ukipen" hori... Mesedez!!

Otan ez! noski ezetz.

Euskal herria bai! Dudik ere ez!

● Donezteberko kontzentrazioan ikasketak euskaraz egiten ari diren neska mutilak 8. urteraino iritsi dira. Beraz, aurten eta lehenbiziko aldiz bukatu da Oinarrizko Heziketa Orokorra (OHO) deritzen dena.

Baina, zer gertatuko da heldu den urtean? Non jarraituko behar dute gazte hauek heuren ikasketak.

Orain artean, erdal sailekoak Mugairera joaten ziren. Mugaireko ikastegian dena erdaraz egiten da. Euskarak ez du tokirik. Beraz, hemendik aurrera...zer gertatu behar du ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasle hauekin? Donezteb e,Bera eta beste lekutako gazteak euskaraz jarraitzeko aukerarik izango ote dute?

Dakigunez, zenbait guraso eta elkarte hortaz arduratzen ari dira. Baina, heldu den urterako erantzunik, soluziorik izango ote da?

Azken berri bat bezala zera Nafarroako Gobernuak Madrilekuari hau eskatu omen dio: Donezteben Ikastegia eraikitzeko baimena. Ikastegi horretan, ikasketak euskaraz egiteko bidea izango omen da.

Dena dela, Donezteberar batek orain dela 15 bat urte,eskola edo antzeko zerbait egiteko lurrak eman omen zituen. Lur horietan oraindik ez da ezer egin.

Bidasoan, Baztanen... irakaskuntza euskaraz jarraitzeko bideak eraiki behar ditugu.

Ez da gerorako utzi behar den gauza. Behar larrilarria dugu hauxe.

Ikastegi eudkalduna ORAIN!

ETXALAR

●AZKEN ATXILOKETAK DIRELA ETA, ihauteriak giro arraro batean igaro dira. Baita ere, erran dute herriko batzuentzat (batzarretara joaten zirenentzat) ETAk ordainduta zeudela.

Izan ere, probokazio ugari ikusi ditugu guardia zibilengandik; pintadak eta abar. Hauek ikusita, ihauterietan gazteek egiten dituzten bazkariafariak non egin problema izan da, azkenean fondan egin direlarik. Harrituta gelditu ziren herrian, ortzegun gizen arratsaldean, eskoletako atean, haurrei txokolatea txurroekin banatzen ikusi zituztenean. Horrez gain, ostatu batean polizi eta guardia zibilei merkeago kobratzen zaie.

Bertzalde, Lesakan barna, panfleto batzuk agertu dira, Etxarlarko alkatesa salatuz, euskararen aurkakoa, "plan ZEN"en aldekoa izateagatik.

Jakin dugunez, Xabier Remon, azken atxilotuetatik, gartxelan jarraitzen duena, Alcala Mecora, epaileetara eramana izanen da.

● Joan den Urtarrilak 4, larunbata "guardia civil" bati tiro bat eskapatu zitzaion, bertze guardiakin batera bazkaltzen ari zelarik fondan. Fondako nagusiak diote tiroa arront nahi gabe izandu zela, inork ez zuela minarik hartu eta kalte materialak ttikiak izandu zirela.

●ETXALARREN EUSKARA BULTZATZEKO TALDE BAT OSATU DA. Antolatu nahi dituzten ekintzen artean, bat, asteburu kulturala. Lehen helburutzat jotzen dute, eskola publikoaren lehen maila euskaraz izatea, horretarako beharko zen orain dauden maisuak euskaraz ikas dezaten edo maisu berri euskaldunak ekartzea. Euskararen aldeko talde honetan parte hartzen dute Etxalarreko zenbait guraso eta gazte.

ARANTZA

● Zubietarrak Ekaitza bereganatu nahi dutela eta..

Duela hiruzpalau hilabete ezkeroztik hor dabiltza Arantza eta Zubietako udaletxea tirabiran Ekaitz tontorreko lur buztan bat dela medio. Dirudienez aferaren gakoa funtsean ehizan omen datza, ze Zubietarrek aldarrikatzen duten lur puska horretan bizpahiru usaleku daude kokaturik eta horren inguruan sortu omen da lur horren eskaria. Arrazoi bati edo besteari emateko, agian hauzitegiraino joan beharrak izanen omen gara.

Arantzatarrok, egin nahi ziguten erasoaz ohartu rik, gure armada guztia mobilizatzeko egon ginen, ondoren Gadafiren antzera heriotzaren lerroa markatuz Zubietarrei aurre egiteko. Gero ohartu gara, Zubietarrek gestio diplomatiko garrantzitsuak eginak eta aliatu indartsuak dituztela atzetik. Horregatik gure atzeratzea.

Dena den eta txantxak alde batera utzirik, penagarria litzateke bizpahiru usalekurengatik ezinikusia sortzea herri zoragarri hauen artean. Beste biderik ez bada, ezaba bitez usalekuak eta segi dezagun beti bezain adiskide. Horrela gau txoriak aterako ginateke irabazle.

●Arantzako ihauteriak, nahiz eta uritan gelditu gabe, humore onean igaro dire. Ortzegunean hasi ziren eta baserrietan ibili, hurrengo egunean berriz, plazan, "Nahagi" taldeak trikitilariak eta Gregorio Mitxelenak musika jo zuten, Herriko Etxeko arkupetan. Gregorio aipatzerakoan erran behar, berari eta Ixari ongi etorria emateko, afaria antolatu zen, elkartean, 60 lagun bildu zirelarik. Igandean, ihauteriko azken eguna, Amuriza eta Lizaso bertsolariak, heuren saioak egin zituzten, urtero ohi den bezala, hori bazkariaren ondotik.

●Basurdea herrian zehar, alajaina!

Iragan berri ditugun egun euritsu horietako batetan, basurde bat herrian zehar ikusteko aukera izan omen dute herritar batzuk. Ez da ikuskizun makala alajaina! Dirudienez, zakurrari ihes egin ezinik eta mendi gainetako elur pilak nahasturik, herriraino jaitsi bide zen zakurrak hankaz hanka zituela. Gauzak nola diren, mendiko aberea izan arren honek ezin egin ihes eta herrira iritxi behar zakurrak nahasteko.

Ez da berri txarra oraindik basurdeak badirela gure mendian ohartzea, ia desagertuak zirelakoan bait geunden.

BAZTAN

ORONOTZEKO INSTITUTOA-RENTZAKO LAGUNTZA.

●Baztango Herriko Etxeak Oronotzeko institutoarentzat 7.150.000 pzta. hartu ditu Nafar Gobernuarengandik. Beharrak izanen ditu ikastetxe honek, baina euskararena noski lehena. Inspektoreak dioenez, heldu den kurtsoan eztare ez da euskararik irakatsiko; posibilitate ttiki bat bakarrik dago: asignatura bat euskaraz izatea. Inspektoreak, Oronotzekoa ez dela instituto bat oroitarazi du, eta berak dioenez zonaldeko egin behar den institutoa egitean estudiatuko zen euskarazko bide hori eramateko modua. Horrela bada, heldu den kurtsoan Ikastoletik eta Donezteberko kontzentrazioatik aterako diren ikasle euskaldunak, ikasketak euskaraz jarraitu nahi badute, nahi eta nahiez Gipuzkoara joan beharko dute.

GURE ESKUALDEA

OTANEN AURKA

HERRIA	ZENTSUA	BOTARIAK	BAI	EZ
ARANTZA	579	406	90	294
BAZTAN	6387	3435	1153	1895
BERTIZARANA	506	249	83	140
DONAMARIA	317	188	30	149
ETXALAR	668	326	79	223
ELGORRIAGA	147	101	27	66
ERASUN	199	124	30	87
EZKURRA	236	112	22	82
ITUREN	365	229	41	169
LABAIEN	282	135	41	79
LESAKA	2250	1406	337	999
OITZ	139	91	16	71
DONEZTEBE	811	492	162	301
SUNBILLA	588	294	79	199
URROTZ	185	121	31	70
BERA	2523	1551	465	985
IGANTZI	456	322	79	223
ZUBIETA	314	166	19	134
ZUGARRAMURDI	208	116	31	79

ADELANTOAREN FIRRILA

Ez dut arrontean ahantzia gure herri ttikia. Ezta pentsatu ere. Ezin euriaren abotsak, hainbertze gauez!, burmuinetan grabaturiko melodiaren ohiartzuna ixildu. Ni bezalaxe kanpora behartuek ederki konprenituko naute. Eta bertara joan aldiro denak agurtu behar izaten ditut, arbol paret burni bakoitza,.. Begien gosea asetzen da horrela, bidenabar, hunat-harat. Eta atrebitzen naiz erratera zenbaitetan hobekiago ohartzen garela izan diren aldaketetaz, bertan egunero bizi zaretenak baino.

Lagun kuadrila bakandu zait, etxe berriak egin dituzte, eta mendiak soiltzen ikusi ditut Bidasoa herdoiltzen zen bitartean. Hala agintzen omen zuen eta, adelantoaren firrilak. Kanpotik heldu ginenoi, eta bertan geldituriko frankori noski, behin baino gehiagotan kezka piztu zaigu txoko gorde horretan: ote daki aintzinka ari dela pentsatuz bazterrak ondatzen dituen horrek naturaren egiazko balioa? Eta duda hor. Aunitzeri aditzen baitzaio gizonaren azolagabekeri handiaz.

"Egunaren ondotik gaua dator eta..." eta hala bada denboraren poderioz, eta gizonaren eskuz, gure parajeak aldatu egin dira. Kalte egin ere egin zaio naturari. Inor guttik erran lezake ezetz. Probetxu partikularraren truke denek sufritu beharreko izorramendu sobera. Eta jendea hasi da protesta eta kejaka hemen eta han. Azolakabeak, ordea, lotsa ere gutti xamar, eta erne egon behar astakeria handiegirik egin ez dadin.

Begiak zorrozteko abisua ekartzera heldu naiz gaurkoan. Gauzak egin aintzinetik ere ikusteko eskatzera. Gerora ondorioak etortzen dira eta. Ez naiz projektu berririk egin behar ez denik erraten ari. Lasai Europa zale predikaria . Baina esperientziak erakutsi digunari kaso egin diezaiogun: Haundinahien ezjakinkeriak egin ditu desastreen erdiak; negozianteen dirugoseak gainerakoak.

Komunitateen "beharrak" konpondu nahi izateak zorrak ekartzen ditu trukean (ez bakarrik diruz pagatzen direnak!), eta situazio berriak. Aurrekontuetan sartu behar dira guzi horiek: zenbat balio du mendi garbia hondatzeak, zer ondorio ekartzen du fabrika handiak herri ttiki batean?.

Horregatik Larungo teleferikoaren kontra jokatu ondotik, azkeneko TTIPITTAPAn, Berako berrien artean, "Bariantea behar dugu" leitu dudanean, herri haunditik kronikatxo hau bidaltzea gogoratu zait. Berriz ere sendabidea gaitza bera baino kaltegarriagoa izanen ote den beldurrez. Sentimentalismoetan erori gabe sentimenduak hor direla jakinik ere, projektu hori, oraindik gehiago, estudiatu behar dela pentsatzen dudalako. Zertarako, bai ala ez, nola, non barna, zer ondorio,.. aintzinetik jakin behar direlako. Afektatu guztien arrazoi eta opioneak adituz. Azolakabeen errazkeria fatalean amildu baino lehen.

Kapi.

HERRIAK ETA HIRIAK



HERRIAK ETA HIRIAK, BIEN ARTEAN GATAZKA IZKUTUA OTE?

Duela egun batzuk, roilo batzuk zirela eta hirirantz gindoazela, lagun batek gisa honetaratsu esan zigun: " Denok hirira bazoazte zeuron roilotxoak burutzera, zer egin behar dugu herrietan? " Hori dela eta bururatu zitzaizkidan hainbat gogoeta, zeinek hemen argitaratzera noan. Ez dakit bide egokitik garatuko dudan gaia, agian astakeria idurituko zaio norbaiti eta zihur eztabaidagarriak izanen dire nik hemen azalduko ditudan iritziak. Dena den, hori litzateke ene asmo nagusia: Eztabaida sortzea gai honen inguruan, ene ustetan bizi garen eskualdetxo honi zuzenki loturik baitago beste hainbat herri txikiri bezalaxe.

Duela urte mordoxka ezkeroztik (berrogeitamar urte ingurutik hona) aldaketa izugarria jasan dute herriek, bertako biztanleen bizimodua eta ogibidea gauetik egunera bezala aldatu baita. Gure gurasoen gaztaroa (beraien esanetan oinarritzen naiz ondorengo baieztapenak azaltzeko) guztiz bestelakoa izana da bizitzaren alor guztietan gurearekin konparatzen badugu, urte aunitzen aldea ez dagoen arren. Lanbideari bagagozkio, orduko ekonomia nekazaritzari estuki lotua zegoen eta jendearen langintza naturarekin kontaktuan zirauen: Artzaintza, ikatzgintza, ohiangintza, nekazaritza etab. Lanbideak mugatzen zituen, gaur egiten duen bezalaxe, giza bizitzaren alor guztiak. Orduko gizakiak, gutxiengo pribile giatu batzuk ezik, ez zuten inolako posibilitaterik ikasketak egiteko eta bestalde, behar gehiegirik ez zuten sentitzen, indar fisikoa ikusten zen beharrezkoena, lan gehienak indarraren ahalmenez egin behar zirenez gero, ahalmen mentala oso gutti lantzen zelarik.

Erlazionatzeko bideak ere nahiko mugatuak zituzten, batez ere bi aspektuagatik: herri bertara mugatuak zeudelako ia erabat eta astean egun bakarra zelako horretara egokitua. Igandea.

Neska mutilek bikotea bilatzerakoan herritarren artean zuten ia aukera bakarra salbuespen batzuk gora behera, beste herrietako jendea ezagutzeko aukerarik izaten ez zutelako. Bestalde, herritik kanpoko norbait ezagutu arren, ez zen noski batere erraza gertatzen harremanak sakontzea, bertako gazteak ez bait zeu-

den hala-nola beuren ustetan tokatzan zitzaiena uzteko. Horregatik datorkigu Arantzatarrei harrikalari ospea, izan ere, kanpotarren bati gogoratzen bazitzaion herriko neska batekin harremanetan sartzea, zuri eta beltzak ikusteko zegoen gizarajoa, neskaren etxerako bidean sentitutako atsegin guztia, hogei aldiz ahanzteko aukera izaten bait zuen herrira bidean, besteak beste, harrikadak, sorgin agerraldiak eta hainbat xamurkerik berriro itzultzeko gogoa kentzen bait zizkioten. Bien bitartean, neskatxa igande bat bestearen atzetik herritar ez zen mutilaren zain (kanpotarrak beti hobeak izaten bait dira) amets liluragarriak eginez, norbaitek gertatutakoaren berri adierazten zion arte etsipena sorraraziz. Ez dakit orduko gazteen portaera honek arrazoi biderik zuenik edo justifika daitekenik, hala ere beste arrazoi askorekin batera ez zen ondoko hau pisu txikienekoa izanen ene uste apalez: herriko neskatxak eramaten bazizkioten bertakoentzako aukera txikitzen zitzaiola, alegia.

Horrela bada, berriro herrira itzuliz, bizitza guztia herriko marko estura zegoen mugaturik, patxada eta lasaitasuna zelarik nagusi. Egonkortasuna zen bizitzaren adierazgarririk handiena.

Aro industrialak ordea izugarrizko aldaketa erakarri du gure herrietako bizitzan. Berriro ere lehen esandakora gatoz: lanbideak mugatzen duela bizimodua. Mende honen sarreran, eta batez ere erdialdetik aurrera, lantegiak suspertzen joan ziren, gehienbat hirien inguruetan. Horrela esku lana behar zela eta, handik eta hemendik hasi zen jendea biltzen, izugarrizko giza kontzentrazioak sortuz herri txikiak ustutzen zihoazen eraberean. Gaur joera hau mantsotu da, baina ez jendea herritan geratzeko irrikitan dagoelako, lantegi berrien sorkuntza bakandu delako eta eskulanaren beharra murriztu. Hau ezezik beste hainbat aldaketa ere izan dira: Gaur herri eta hirien arteko tarteak txikitu zaizkigu, garraio tresna egokiak daudelako, kotxea etab... Haatik, lehen ia bizitza osoa herrian sartua egiten zen bitartean gaur etengabe mugimenduan eta joan-etorrian gabiltza, ikasketak direla, lana dela, dibertsioa eta... Lehen gertatzen zenaren alderantziz, egun oso gutti dira gutxienez inguruko hirien berri ez dakitenak. Aintzina patxada eta lasaitasuna zena urduritasuna eta ezin egona bilakatu da gaur, izan ere baikara gauza ezer egin gabe egoteko. Bestalde, ez da txantxetakoa kontua esku gurutzaturik bizitzea, aurrerakuntza eta berrikuntzaz beterik dagoen gizarte honek ez baitu inolako alaitasunik barkatzen.

Beraz, mugikortasuna dela gaurko gizartearen bereizkuntzarik nabarmenena esan dezakegu.



Egun herri ttikienak batez ere, bizirik gabe geratzen ari dira. Nekazaritzaren inguruan kontu neketsu eta gogorra da bizia aurrera ateratzea. Gaztediarentzako ez dago inolako ahalegingarririk, baita ere jakin, eguzkitik eguzkira lan egin ondoren oso etekin ttikia aterako duela.

Astean zehar, penagarria bada zenbait herrixken itxura ikustea, asteburutan ez da areagotu besterik egiten. Garai batean herrietan ospatzen ziren igandeetako jaialditxoak akordeoi eta txistulariekin ia ahanztuxeak ditugu eta bildur naiz epe laburrean ihauteriekin ez ote den gauza berdintsua gertatuko.

Lanera, ikastera, besta egitera herritik kanpora bagoaz, zertako bada herria?

Gisa honetako egoerara iritsi bagara, ekonomi sistemarengatik da, lanbidea baita bizimoduaren ardatza. Ba al du honek bueltarik? Galde dezake norbaitek. Ene ustetan bai. Gauzak ez dira beti berdinak izaten zorionez eta gaur hankaz gora dagoena bihar bere onera hel liteke. Hala ere, hemen esatea bezain erraza ez da izango, gizateriaren eraginez eta urte luzeetako egoerak sortu badu aldaketa, itzulera ere faktore berdintsuagatik gertatuko baita. Bestalde, ez beza gero inork pentsa, duela mende bateko bizimodua goresten edo desiatzen ari naizenik, ene uste apalean ez baitago horretara itzultzerik, atzerakoia izango litzatekelako urte hauetan lortu ditugun aurrerakuntzari uko egitea. Aintzinako bizimodua hainbat gauza on izanen zituen gaurkoak dituen bezalaxe eta alderdi onak aukeratzea litzateke gizonarentzako jakintzarik desiagarriena. Baina nik jorratu nahi dudan gaia ez doa bide horretatik, nola erakarri oreka berriro ere herri txikietara, hauek bizi eraztea, populazioaren bataz besteko adinak daraman gehitze beldurgarria geldieraztea etab... dira ni kezkatzen nauten gaiak lantxo hau idazterakoan.

Nire ustetan ez da naturala eta onuragarria gaur herrietan sortzen ari den giza pilaketa, kaiolako oilaskoak bailiran bizi baitira, zemento eta ladriloz inguraturik naturarekin inolako kontaktutik hain urruti. Bitartean, garai batean sasoitsu ziren baserriak lur jota ikusten ditugu, pinuz beterik, eta beste hainbat bide beretsua daramatela. Hirietan dagoen langabezia eta degradazioa ikusi arren gure joera hiriratzea da kontraesana badirudi ere, eta aurrerantzean ere hala jarraituko du herrietako bizimodua eta nekazaritzan ihardutea hobetzen ez den bitartean.

Oraindik begi bistan daukat Kuba-ko herrixketan nekazariek zeramaten bizimodu atsegina. Ez zuten noski hemengo luxorik ezta ere aberatsa izateko posibilitaterik, baina ez zen hori beraien asmoa. Haiek bazekiten egunean zortzi ordu lan eginez gero zihurtatua zeukatela egunero-ko ogia eta beuren eta umeen etorkizuna ez zegoela kololan. Lanetik kanpo, bazituzten denbora pasagarri atseginal: filmeak ikusteko aukera, biblioteka denen esku, alfabetizatzeko aukera debalde etab..- Azken batean, hiriko bizi maila berdina.

Hemen baldintza berdintsutan aurkituko bagina, ez ahal litzateke egoera aldatuko, eta herriak ez al lirateke jendez beteko? sozialismoak, benetakoak noski, ez al luke erakarriko herri eta hirien arteko oreka?

Bitartean bizi behar denez, ahalegindu behar dugu herrietako bizia atsegina bilakatzen, bertan bizi mantentzen, gazteentzako erakargarria bihurtzen. Udaletxeak, elkarte kulturalak etabarrek, badaukate hor zer eginik, ze aldetik hobetzeko ahalmen gehiegirik ez badute ere ez dagoelako beraien eskutan, zerbait lor dezakete kultura mailan, besta, eginkizun eta aktibitate egokiak antolatuz: Haur, gazte eta zaharrentzako.

Assura.

ELIKADURA



Elikadura-toxiinfekzioak gerta ez daitezen, janari-gauzak erabiltzeko orduan, prestatzerakoan edo jaterakoan kontutan eduki behar diren zenbait aholka gomendatzen da.

ESNEA

Naturala: Esneontzian 3 minutuz egosten utzi edo hiru aldiz igotzen utz ezazu.

Pasteurizatua: Balio-data begiratu. Hozkailuan gorde ezazu.

Esterilizatua: Begira ezazu zein egun baino lehen kontsumitzeko adierazten duen. Esneontziak boteilak direnean ilunpean egon behar dute. Irekiz gero, hozkailuan gorde eta lehen bait lehen kontsumitu ezazu.

MAIONESAK

Garantiazko lekuetan erosi. Begiratu Osasun-erregistroa baduten.

Etxean prestatzen baduzu, ahalik eta denbora laburrenean kontsumitu.

Prestatu ondoren, ez utzi denbora luzean hozkailutik kanpo, mikrobioak ugaltzen bait dira.

KONTSERBAK

Edozein kontserba-lata normalean baino beratzagoa baldin badago, gasa edo usain txarra izanez gero ez da dastatu ere egin behar.

Zalantzarik izanez gero eta ahalez gero, bost minutuz irakiten eduki.

Begiratu ezazu zein egun baino lehen kontsumitzeko adierazten duen.

Ontzian "semikontserba" jartzen badu, orduarte 0º eta 5ºC arteko tenperaturan egon dela baieztatu behar da.

ARRAUTZAK

Arrautzen azalekin, gordinik jan behar den edozein janari (berdurak, frutuak,ogia eta abar) ez ukitzeko ahaleginak egin itzazu.

Arrautz azalean zikintasunik ikusiz gero garbitu.

TABERNETAN

Begira ezazu ea beirarasa baten bidez gordeak dauden publikoaren aitzinean dauden janariak.

Mariskoak ez dute lehorregiak egon behar, ezta kolore moteletan ere.

Jaterako orduan, osasun-arriskua txikia dutenak berezi (egin berriak diren frijiturak, azeitunak, fruitu lehorrak).

Ahalez gero, begira ezazu ea harrikoren garbitasuna ur beroarekin egiten den ala ez.

Parte har ezazu paperak eta zaborrak lurrera ez botatzen.

IZOZKAILUAK

Izozkailuak instalazio onak dauden dendetan erosi behar dira.

Ontziak osorik egon behar dute, haustararik gabe azaldu, ez urradurarik eta ezta izotzik ere.

Zatitan saltzen den arraina edo haragiak, gogorra eta itxuragabetzarik gabe egon behar du.

Ontziratu gabe dagoen gauza izoztua, aluminiozko paperetan edo plastikotan biltzea komeni da.

Kontserbazio-denbora:

Izozgailuan: egun bat.

* Izozgailuan: hiru egun.

** Izozgailuan: hilabete bat.

*** Izozgailuan: hiru hilabete.

**** Izozgailuan: hiru hilabete baino gehiago.

IBILALDIETAN

Ez edan garantiarik gabeko urik.

Beharrez gero ura egosi ondoren edan.

Egun bat baino gehiago ibili beharrez gero, kontserbaz hornitu eta erdikontserba direnak alde batera utzi.

Ahalez gero animaliekin ez ukipenik izan.

ESNEKIAK

Gazta egin berria: Pasteurizatu gabeko esnearekin egina izan bada, ez ezazu kontsumitu. Beti ere etiketatua eska ezazu.

Gazta zaharra: Etiketari begiratuz, gazta hori egin zenetik eta jaten hasi baino lehen, gutxienez bi hilabete pasa direla ikusi behar da. Sueltoan saltzen den gazta birrindua edo gazta-hautsa jatea debekatua dago.

Jogurrak: Balio-data begiratu. Hozkailuan gorde behar dira.

HOZKAILUAREN ERABILERA

Hozkailuak ez du janaria hobetzen, kontserbazio-denbora gehitu besterik ez du egiten.

Apal berean ez da nahasi behar haragia, berdura edo arrainekin, ezta prestatuak dauden janariak gordinik daudenekin. Arraultzak, gaztak eta esnea, bakoitzari dagokion lekuan egon behar dute.

Hozkailua, ahalik eta maizena eta ongi garbitu behar da.

Ikusten baduzu janariak lehorregiak daudela, aparatuaren hezetasuna gehi ezazu ur-ontzi bat paratuz.

Badira zenbait janari, kamararen hozketa behar ez dutenak (hestebeteak, kontserba itxiak, espezieak eta gozagarriak, olioak, ozpinak eta abar)

SUKALDEAN OLIOAK

Garantia duen produktua lor ezazu.

Frijitu ondoren olioa, iragazkia duten ontzietan gorde.

Lehenik erabilitakoari, olio gordinik ez nahastu. Osorik olioa berritu egin behar da.

Irabazi den olioarekin ez da bost frijitura baino gehiago egin behar eta arraina bezalako janariekin berriz, behin bakarrik erabili behar da.

A.Z.

HIZTEGIA

Aholkuak: Consejos.
Baieztatu: Comprobar.
Beirarasa: Vitrina
Birrindua: Rallado.
Dastatu: Probar.
Data: Fecha.
Elikadura: Alimentacion.
Frijiturak: fritos.
Haustura: Ruptura.
Harrikoa: Fregado de la vajilla.
Hezetasuna: Humedad.
Hozkailua: Frigorifikoa.
Ibilaldia: Viaje.
Iragazkia: Pasador.

PU-PU...!!

PU-PU-¡..! ETA PUPUA ZORIONTASUNAREN TRENEAN

Bidasoako tren zenari.

Larru-Gorriak eta siouxak treneko bidaztioi hurbildu ahala gertatu hunan.

Gaua, eguna lotan bertzerik ez dena, ederki somatzen ahal hunan. Ilunabarrean hunan. Eguzki gori ikuste nahi hartan alde bateko lehiotik bertzera joan behar izaten hunan, izan ere trena benetan jostalaria bait geninan.

Une hartan gogoetak nahiz oroitzapenak batera zetozkinan, ferrokarrilaren mugimenduak sortaraziko nolabaiteko nahaspila batetan. Dena den, txartelak zulatzeko zaletasuna zinan gizona gerturatzean edota geltokietan tebeoak saltzera sartzen zitzaizkizuenan gazte haren ohiuengatik, hauek noiz edo noiz desagertu egiten hitunan.

* * *

Gogoan al dun, errate baterako, goizeko euri artean Sunbilako zubian, Bidasoaren harrizko lagun zulatu betierekoa pasa huenean, Mendaur mendi aldera abiatu hintzenean? Benetan egun goibela hunan orduko hura. Ur ttanttoak belar puntetan jostetan aritzen hitunan, nor zirristatuko lehen-lehenen lurraren egarria asetu nahian.

Edonoiz, lainoak altxatzean, herriska eta baserri xuri batzuk ikus ahal izaten hituen, eta kontentu, zenbaitetan euri erauntsi haundiak egin arren, Bidasoaren ederrean murgiltzen hintzen.

Bidean, bakartasun biluzi hartan, noizean noiz, zizara bihurri baina nagiren bat topatzen huen, eta inguruak ongi miatu ondoren, norbait zelatan egonen ote hunan beldurrez, berarekin solasteari ekiten hion. Gertaera bera mattin saltoekin eta tximeletekin ematen hunan. Urrundik zetozenanean berriz, aizkorak zurari sortaraziko ohiu latzak aditzen hituen.

Hi ikusirik, ardiak lerro lerroan paratzen hitunan, eta hi artzai izanen bahintza aintzinetik joaten hintzaienan. "Ardi galdua aise atzeman daiteke, aldi galdua aldiz ez" esaera berehala burura zitzainan.

Han, aterkia ixilik ixten saiatu hintzen, gogoan al dun?, bada ezpada ere, eguraldia kontura ez zedin.

Eguna bere lozorrotik irtetzen ari hunan, hi berriz maldan gora, Kijotearen antzera jo ta ke igotzen. Orduan, Erromako Zubia edo Ortzadarraren sortzea ikus ahal izan huen, eta zer edo zer erran nahi baina ezin.

"Zoriontasuna bizitzaren norma bakarra da; huts egiten duenean bizitzak zorigaiztoko experientzia zentzu gabea dirudi".

G.Santayana.

"Zoriontasun nozioa, Ortzadarraren mutur lejendarioen antzera urrun eta irristakorra bilakatu da ia".

J.Y. Cousteau.

Eta Erromako Zubi koloredunaren jaiotza horren gertu izanik, zoriontasuna erehurbil ikusi huen.

Sentipen multzo hartan, beldurrarena somatu huen ondoren, Mendaurreko ermitatxoan barren. Haizeak gero eta indar haundiagoz jotzen zinan eta hi, bakarrik eta hotzak hintzen. Heu bakarrik, haizea eta barruko irudia izan ezik, eta bakardadean, patata-tortilaren laguntza bertzerik ez huen dastatu.

Eta galderen eragina hedatu egin hunan hiregan, hi baitan.

Herriaren sinismenak, beldurrak ere akaso, zera zuen idatzirik:

MENDAURKO TRINITATE
1692'AN
EGIÑA
1963'AN
BERITUA
ITUREN

Herriaren ohiartzunak zetozkinan, alegia, zintzarriek eta dunbek sortutakoa. Haizeak ere naturaren papera antzezten zinan hire aintzinean bizitzaren ohiu mingots eta erakargarria atzeman huenean. Bizitzaren laborariena apika?

* * *

Eta altaboz baten hotsak aurreko antzeleku edo bizilekura eraman hindunan: "ohar honen bidez zera adierazten da, Jaiotzatik Heriotzerantz dohaien trena, Fantasia eta Barrebarrak, Maitasuna eta Miraria, Gorrotoa eta Eritasun eta bertze batu ere igarotzen dituenari, irteera berehala emanen diogula. Pu-Pu¡..!

Patxi Zubizarreta

AMAIUR



AMAIUR: NAPAR ASKATASUNAREN ALDE (1522-19221982)

AMAIUR BAZTAN HARANEAN KOKATZEN DA. ERDI-AROAN MENDI TONTOR BATEAN GAZTELU BAT ZEGOEN, NAFARROAKO KONDAIRAN HAIN GARRANTZI HAUNDIA IZAN ZUENA.

AMAIUR edo MAYA bezala ezaguna da herri hau. Badirudi bi izen hauek oinarri bera daukatela: "amai". Lapurdira doan bidean aurkitzen dugu, Baztango azken herria delarik.

Erdi-Aroan, administratiboki, Baztango-a izan zen; 1425. urtean berezi zen, "villa exenta" bezala geldituz 1969. urte arte.

Bere armarria ezkila bat da. Herriaren sarreran aurkitzen den arkupe batean honelaxe dio: "Estas son las armas de los desta Noble y Leal Villa de Maya". Armarri honek bere istoriotxoa dauka: ele xaharrek diotenez, gazteluko alkaideak erran omen zion erretoreari meza zenean gaztigatzeko; erretoreak arrapostu eman zion erranez ezkilak joko zituela. Baina alkaidea ez zegoen ados. Pleitoa sortzen da, herriak irabaziz. XV. mendetik hona, Amaiurko etxe guztietako armarrietan ezkila agertzen da.

AMAIURREN HISTORIA

**Amaiurko Eliza*

Amaiurri buruzko dokumenturik zaharrenak XI. mendean aurkitzen ditugu; han erraten du eliza bat zegoela, Santa Mariarena hain zuzen. Bere jabeak Baztango Bizkondeak ziren.

Euskal Herrian ohi zen bezala, noblezia monastegi eta elizen jabe zen. Abadeak eta erretoreak izendatzen zituzten, hamarrenak eta primiziak bilduz; diru honekin elizako gastuak ordaintzen zituzten.

1095ean Semèn Garcèiz, Baztango Bizkonde zena, Santa Mariaren eliza Baionako Apezkikuari eman egiten dio, bere bekatuen barkamenduaren truke.

XVI. mendearen bukaera arte herrian sortzen ziren arazoak jujatzen zituzten, eta ez herriko agintariek.

**Amaiur: "villa buena"*

Izkribu zaharrek diotenez, XIII. mendetik aintzina bederen, Amaiurko biztanlegoa hidalgoa zen, petxak (zergak) ordaintzera behartua ez zena. Etxe bakoitzak (1330.ean,35 etxe; 1350.ean, 25 etxe, izurri beltzaren ondorioz) urtean zentsu

bat ordaintzen zion Erregeari.

1399an Karlos Nobleak "Buena Villa con asiento en Cortes" titulua ematen dio.

*Beaumontesak eta Agramontesak

XV. mendearen bigarren zatian eta 1521. urtea arte, Nafarroako Erreinuaren lurretan bi talde etsai dauzkagu: lehenengoa, Bianako Printzearen aldekoak, Juan de Beaumont eta Luis de Beaumont laguntzaile dituelarik, (beaumontesak) eta bigarrena, Don Juan, Nafarroako errearen ezkontidearen aldekoak, Pierres de Peralta eta Juan de Grammont kontseilariekin batera (agramontesak).

Bi talde hauen artean gerra pizten denean, Amaiur eta Ultrapuertos (Behenafarroa) Printzearen alde jartzen dira. Urte batzuz beaumontarrek manatzen dute gazteluan; 1455a ondoren agramontearrek herria eta gaztelua indarrez hartzen dituzte.

1494ean Juan de Albret eta Katalina erregeak Iruñeko katedralean koroatuak izaten dira. Agramontearrek laguntzen dituzte, Leringo Kontea, Fernando Katolikoaren koinadua, aurka ateratzen delarik.

Pixkanaka Nafar Erreinua ahulduz doa, barneko istiluen ondorioz, eta Espainiako eta Frantziako Erreinuen eraginez.

*Nafar Erreinuaren Konkista

Arestion ikusi dugunez, Nafarroan bi talde desberdinek guda bizian dihardute.

Konkista honetan zati batzuk ematen dira:

-1512ko uztaila:

.Fernando Katolikoak Nafarroako Erregeekin akordio bat sinatzen du (Tratado de Blois delakoa).

.Albako Dukearen armadak Nafarroa inbaditzen du. Espainiako noblezia hortxe zegoen, gipuzkoarrak, arabatarrak eta nafar traidoreak abanguardian zituztelarik.

.Albako Dukeak Iruñea hartzen du.

-1512ko abuztua:

Amaiur eta Donibane Garaziko gazteluak erortzen dira. Gero Irunberri, Biana, Lizarra, Erronkari, Tutera, Monjardin, Miranda, Kaseda, Aezkoa eta Saraitzuko bailarak.

-1512ko buruila:

Nafarroa osoa gaztelatarren eskuetan dago. Bi urtez Nafarroako Erregeak ez dute amore emanen, baina porrot eginen dute.

-1515.urtea:

Fernando Erregeak, Nafarroa Gaztelako Erreinuan sartzen du. Gure herri honek libertate osoa galtzen du nahiz eta Korteak eta zergen ordainketa sistema mantendu. Orain Gaztelako erregea Nafarroakoa ere izanen da.

-1516.urtea:

Nafar agramontearrak eta beaumontearrak Erronkariko bailaran eta Amaiurren sartzen dira, Don Pedro de Navarraren gidaritzapean. Baina Villalba koronelak garaitzen ditu.

-1516 urtetik 1518ra:

Erreinuko gazteluak desegiten hasten dira; Amaiurkoa salbatzen da Baionara doan bidea zaindu behar duelako.

-1518-1519. urteak:



Gauzak dauden bezala mantentzen dira, aldaketa gutti egin zirelarik.

-1520.urtea:

Urdazubiko Monastegia indarrez hartzen dute.

-1521eko maiatza:

Enrike II.ak (Juan de Albret eta Katalinaren semea) Nafarroa errekonkistatzen du.

-1521ko ekaina:

Gaztelarrek berriz Nafarroa errekonkis-

tatzen dute. Jende aunitz hiltzen da, salbatu zirenak Biarnora ihes egiten dutelarik.

-1521ko buruila:

Bonibet Almiranteak Amaiur hartzen du.

-1522ko uztaila:

Mirandako Kontea, Nafarroako Errege Ordea, tropa haundi batekin, gazteluaren aurrean jartzen da. Gaztelua berrehun gudarik defendatzen zuten: horien artean hortxe zeuden Jaime Belaz de Medrano, gazteluko alkaidea; Luis Belaz, bere semea; Miguel de Jatsu eta Juan de Azpilkueta (Xabierko Frantziskoren anaiak); Juan de Olloki; Victor de Mauleon eta Juan de Orbara, Urdazibiko Monastegiko abadea.

Uztailaren 15etik 19ra bitartean gaztelua erortzen da. Bizirik atera zirenak preso eraman zituzten.

**Amaiurko oroitarria*

1920. urtean Nafarroako Monumentuen Komisioak erabakitzen du Nafarroaren alde borroka egin zutenen oroimenez, oroigarri bat egitea. Uztailaren 23.ean lehengo harria jartzen da. Hantxe egon ziren Euskal Herriko lau probintzietako ahaldun nagusiak, Eusko Ikaskuntzako partaideak eta herritar asko.

Baina berehala ixkanbilak sortzen dira. Pradera eta Jaimistak aurka ateratzen dira.

Azkenean 1922ko ekainaren 30ean inauguratzen da. Euskal Herri guztiko jendea etorri zen. Laurehun urte behar izan ziren Nafarroaren alde beren bizia eman zutenei oroigarri xume bat eraikitzeko.

Baina monumentua eraiki arte izan ziren istiluak ondotik ere jarraitu zuten. 1931ko uztailaren 26eko gauean, II. Errepublika garaian, dinamitatzen dute.

Hirurogei urte behar izan ziren monumentua berrinauguratzeko; 1982ko urriaren 10ean izugarrizko jendetza Amaiurrera inguratu zen.

ALKURRUNTZ

HERRIETAKO BIZIMODUA

Zubieta, herri txikia baina polita eta ikusgarria. Mendi tartean agertzen zaigu, bere landa eta soroekin, Malda Errekako herri guztiak bezala.

Gaur egun, Zubietako herria ez da laurehun biztanletara ailegatzen. Orain dela berrogeiren bat urte berriz, Zubietan ia zazpirehun biztanle bizi ziren, herrian bertan eta bere baserrietan. Orain berriz baserri asko, lehenago beterik zaudenak hutsak daude. Badira bai, batzu oraindik, baino ez lehengo moduan. Herrian bertan ere etxe asko hutsak ikusten dira.

Zer gertatu da etxe eta baserri horietako jendeekin? Ia denak hiri haundietara joan dira, beste bizi modu desberdin batera, lana bila etabar. Beste aldetik ere, eskontzen diren gehienak herritik lekutzen dira hirietara, heuren pisoa hirian erosi dutelako, edo beste herri batzuetara, senarraren etxera edo alderantziz. Eta gure herrian berriz, ia biztanle berririk ez dugu ikusten, bakarrik jaio berriak, eta horiek gutxi izaten dira, batez ere azken urte hauetan.

Gainera nahiko agure bada adinezkoa.

Eta poliki, poliki herria jende gutxiagokin gelditzen ari da.

Batez ere udan nabaritzen da. Hilabete horietan gazte asko Frantzia aldera joaten da mendian lanean aritzera, eta neguraino ez dira etortzen. Langile horiek etorri arte herrian girorik ez dago, kristoren ixiltasuna izaten da, herria hila dagoela nabari du.

Beharrik oraindik haur batzu baidirela herria pixka bat animatzeko heuren jolas eta zalapartekin. Haur horiek bederen bizitasuna ematen diote herriari.

Lau menditar aukeratu ditugu, beraiekin elkarrizketa bat egiteko. Normalki denak sei edo zortzi hilabetetako kontratuekin Frantzira joaten dira, urte asko daramaten batzuk residentzia egina dute. Menditar hauek egiten dituzten lanak hauek dira: arbolak bota, adarrak kendu, arbolak zuritu, moztu eta desbardenatu, gero kamioiak hartu eta eramateko.

Galdera batzu egin dizkiegu:

G: Frantzira lan egitera joaten zarete, zergatik?

E: Hemen lanarik ez dugulako eta beste irtenbiderik ez dugulako ikusten. Frantzian sei edo zortzi hilabetetan hemen baino gehiago irabazten dugu eta negua pasatu ondoren zerbait gelditzen zaigu.

G: Zer sentitu zenuten joaterakoan?

E: Alde batetik pena haundia, familia eta lagunak utzi behar eta... beste aldetik gogoak diru pixka baten jabe izateko.

G: Zer lan egiten duzue? Ze kondiziotan?

E: Izeietan lan egiten dugu, bat motosierrakin arbola botatzen, bestea zuritzen eta adarrak kentzen, eta beste problema zera, lagun gutxi izaten garela prozesu guztian.

G: Lanean lagunik egiteko posibilitaterik ba al dago?

E: Bai noski, nahiz eta gu herriko lagunen batekin ari.

G: Zer bizi modu egiten duzue?

E: Elikapenari buruz hemengo era berean, baina etxekoadrerik gabe eta orduan bakoitzak bere janaria egiten du, edo egun batean batek eta bestean besteek, txandatuz.

Arropak ere garbitzen ditugu, behar bada zikinxamarrak ibiltzen gara, garbitzeko alperkeriz.



Goizean goiz lanean hasitzen gara eta gutxi gora behera hamar bat orduz.

G: Zuen iduriz balio du sei edo zortzi hilabetez ia atera gabe aritzeak?
E: Ba, diru aldetik bai, baina lana ere egin behar da eta gogorra da, batez ere negu aldian hotzak hasitzen direnean, gaizki xamar pasatzen dugu.

G: Ateratzen al zarete?
E: Tarteka ateratzen gara, hamabostetik edo horrela, baita supermerkatura erosketak egitera ere eta nola ez, frantsesa ere ikasten dugu eta pixka bat praktikatu.

G: Han, nortaz edo zertaz gogoratzen zarete gehien? Zer
sumatzen duzue faltan?
E: Gehiena familiaz eta lagunez. Herriko bestak ere bai.

G: Etortzean poltsak bete beteak baina zer sentitzen duzue berriz hemen izatean?
E: Ondarreko egunak gogorrenak izaten dira, elurte haundienak eta lehenbaitlehen etxaldera etortzeko gogoz egoten gara, bai eta poztasunez beteak.

G: Zer da etorri eta lehendabizi egiten duzuena?
E: Familia ikusi eta pasatutako istorioak eta kezkak elkarri kontatu, baita ere mozkor on bat harrapatu lagunekin lasaitzeko.

G: Ikusten dut, ia guztiak musean aritzen zaretela. Diru jokoa gustatzen zaizue?
E: Bai, musean aritzea maite dugu, normalki txapelketetara joaten gara baina diru jokoan ez. Noiz behinka tragoak edo afariren bat jokatzen dugu.
G: Diferentzi asko dago hemen egiten duzuen bizi modutik bestera?
E: Bai, hemen lasaiago bizitzen gara, batzuk etxean laguntzen ardiekin eta horrela. Bestalde hemen asko ateratzen gara, Bordatxora edo lagunekin, tabernaz taberna.
Mendian, egun guztian lanean ari eta gainera esan dizugun bezala janaria eta garbitasuna geunek egin behar ditugu, oso desberdina da.

G: Ze bizi modu gustatuko litzaizueke eramatea? eta besterentzat?
E: Ofizina batean lan egitea, lanpostu bat hemen izatea. Eta besterentzat ere bizi modu hobea.

G: Zer iduritzen zaizue Zubietako gazteen giroa? Dibertitzen direla edo lanetaz edo abar urdiri daudela, eta gaizki xamar pasatzen ari direla?
E: Bai, oso giro ona dago, juergan hemen bezala inor ez da ibiltzen. Jende frango lanarik gabe badago, baina mendian edo herri lanetan edo zerbaitean lana egiten dute.



OTAN...?

Irakasle eta ikasleok komenigarri ikusten dugu gure zentrorako Aliantza Atlantikan sartzea eta parte hartzea honelako baldintzentan:

1/ Alianza Atlantikak egunero ikasle eta irakasleentzat afari bat ordaindu beharko du.

2/ Aliantza Atlantikak prentsaurre guztiak euskaraz eginen ditu.

3/ Baseak Ameriketara.

4/ Gobernua irla batetara bidali.

5/ Misilak OTANgo nagusien etxeetara.

6/ Aliantza Atlantikak aterpe nuklear bat eginen du zentro honetarako, ikasle eta irakasle guztientzat; aterpeak baldintza hauek bete beharko ditu:

. Edari aukera haundia eta Manuel Fraga "camarero" (egunean 14 ordu eta soldatarik gabe). Ordu libreetan herri kiroletan ariko da, harri altxatzen hain zuzen.

. Vestringe eta Gerra "vedette" izanen dira.

. Arzallus eta Ardantzak bederatzietatik hamabiak arte Amerikarrei bertsoak abestuko dizkiete.

. Felipe eta Auzoberriri lege antiterrorista ezarriko diegu; beraz gauaz leoi kaiola batean eginen dute lo eta egunaz kaiola hori garbitu eta zainduko dute. (lana haunitz baldin badute Saenz de Santamariak lagunduko die).

. Oheratu baino lehen leoiak goseak baldin badaude, Urralburuk bedeinkapena emanen die, bitartean kanpoan egonen da ea erradiaziorik badagoen ikusteko.

. Hilabetean behin errusiarrak afaltzera gonbidatuko ditugu.

AEKko 2. urratsa

BORTZIRI: GEOGRAFIA ETA HISTORIA

BORTZIRIKO GEOGRAFIA ETA HISTORIA AZTERKETA

1. Zein izena du Lesaka eta Igantzi artean dagoen portuak?
   AKERBIDE
2. Lesaka eta Bera artean zein geltokia dago?
   DARDARZUBI GELTOKIA
3. Zein muga dago Lesaka erdian, Zialdo eta Kaminero artean?
   MINGAINLUZE TALDEA
4. Nork hartu du Lesakan azkeneko Literatur Saria?
   EPI IRRISOLAS
5. Non ostatzen dira lehendakariak Beran?
   TXANTRE URRIKALGARRIAN
6. Ze aireportu dago Arantzan?
   KOPETATXAL
7. Norekin elkarrizketatu zen Franco Bigarren Gerra Mundialan ez sartzeko?
   ETXALARREKO TATXERREKIN
8. Nor da Bortziriko OTANen roiloa eramaten duena?
   IGANTZIKO RONALD
9. Nork eraman zuen gure euskara Bostongo Unibertsitatera?
   ELIZONDOKO JULIUS DE LA FUENTE
10. Zein izena du Lesakako rokerorik ospetsuenak?
    JOSEPE E. ERREKAKOA

AEKko lehen urratsa.

HAUR IPUIN BAT

Basurde bat zegoen mendian. Kurrinka zebilen, aldapan gora, hemen eta han jaten.
Bere gorputza ia ez zen nabaritzen iratzeen
artean. Ez dira hain altuak basurdeak. Ni horretaz konturatu nintzen han goian, baina badaezpada ezkutatu nintzen piska bat. Basurdearen itxura ez zen txantxetakoa benetan.

Orain zela ordu bat nire aitak harkaitz haren gainean utzi ninduen, bera ehiztaria bait da eta gaur berarekin etorri naiz mendira. Hain ezkutatua nengoen harkaitzaren gainean ez nuela orain basurdea ongi ikusten. Sasitik eskubitarantz hobe ikusteko irten eta, ez dakit nola, irristatu nintzen nonbait nire gordeleku ederra utziz. Lurrean nengoen orain kurrinka gero eta gertuago, gero eta ozenkiago adituz... Hura zen ikaraldia! Beldur nintzen eta oihukatzen hasi: "Aita, aita! Etzanda nengoelarik ez nintzen jeikitzen ausartzen.

Anitz oihu egin ondoren, erabat isilik geratu nintzen momentu batean basurdea aditzeko asmoz. Zuhaitzen artean haize emea besterik ez aditu ondoren nire beldurra piska bat baretu zen. Agian joan da, pentsatuz, mantsomantso jeiki nintzen belarriak eta begiak erne. Arrokaraino, lehen nengoen tokiraino, berriz igotzeko bira haundi bat eman behar nuen, baina han goian zegoen nire salbazioa. Hamar urrats kontuz eman jakin badakit hamar izan zirela banan bana kontatu nituen eta-. Arranopola! Hiru metrotara basurdearen begi txikiak nire ibilbideari begira ziren! Hura ikara eta izua! Sabela zintzurraraino igon zitzaidan eta ezin nuen garrasi egin, bakarrik korrika aldapan gora. Iratze gorriskek nire gorputz guztian astintzen ninduten, baina nik, kasorik egin gabe, jarraitzen nuen lasterka ero bat bezala. Arnasestuka gelditu nintzen azkenik, gehiago ezin nuen eta. Behitira begira eta zerbait mugitzen iratzetan ikusi nuen. Haizea ote zen? Dena dela, atsedenalditxoa egin ondoren, lasaiago ekin nion ihesari. Beti maldan gora, mendiska haren tontorreraino heldu arte. Handik ikusten zen ikuskizun zoragarria! Haran osoa eguzkiak argitua. Kopeta xukatu nuen izerditan bait nengoen. Orain galdua, pentsatuz, erabat desbideratua, ezin naiz itzuli harkaitzeraino eta hemendik ez dakit nola. Gogoak baneuzkan ere erabaki nuen ez nega-

rrik egitea neskatxa kaskar bat ez bait naiz.

Tontor hartatik oihartzun eder bat adi zintekeela pentsatu nuen eta, eskuak ahoan bozgarailu baten antzera, oihukatzen hasi nintzen: "Aita, aitatxo!" "Txo,txo,-txo...!", egiten zuen oihartzunak. Jolasa atsegin zitzaidan eta, ona zela beldurra uxatzeko pentsatuz, oihu egiteari ekin nion behin eta berriz. "Aitatxo, aita!" "Ta, ta, ta...!" Oraingoan oihartzunak ihardetsi zidan. Baina giza erantzunik ez. Horrela iraun nuen ez dakit zenbat denbora eta adoragabe utzi nion oihukatzeari lurrean eseriz. Iratze gorrisken artean jarria, basoan desbideratua, soilik, biziak ez zidan hain panpoxarik eman eta negar egiteko grina berriz izan nuen, baina astirik ez.

"Kurrink, kurrink...! Urrun samar baina oso garbi aditzen zen. Basurdea berriro! Nire garrasiek erakarri zuten, agian, eta berak aldapa polikipoliki igo zuen gero. Mugiezinik, arnasarik gabe geratu nintzen. Etzanda, ezkutatzeko asmotan, burua lurrean indioen antzera paratuz, baina deuseztarako: "kurrink, kurrink...", gero eta gertuago. Bihotzaren taupadek haizearen hotsak baino ozenkiago durundatzen zuten ene buruan. Nire bila zetorren pizti nazkagarri hura!

Kurrinkak eten gabe ziren unetxo batean eta jeiki nintzen joana zela pentsatuz. Bai zera! Ihantxe ziren basurdearen begitxoak niri tente begira miope baten antzera. Berehala dena usainka mugitu zen eta bere betortz beldurgarriak zorrozten ari zela zirudien. Berriz korrikari ekin nion, oraingoan aldapan behera iratze eta sasien artean.

Saltoka eta korrika nire orpoetan dardar bat sentitzen nuen eta izuak nire gorputz bero osoa zeharkatzen zuen. Bapatean harri batekin behaztopatu nintzen ahozpez lurrera joz. Akabo! Berehala pentsatu nuen nire bizia akitu zela. Ene galtza belaunetik puskatu zegoelarik, odol anitz ateratzen zitzaidan handik bertatik. Min handia nuen baina eskapatzeko zangoa mugitzen saiatu nintzen. Alferrik, ezinezkoa. Lurrari atxikituak zirudien benetan. Ezin nuen tolestatu eta odolak jariotzen segitzen zuen. Basurdearen arnas epelaz oihartzerakoan begiak itxi nituen burua besoen eta eskuen bitartez babestuz. Hiltzeko prest, figura espantagarri bat nire burutik pasatu zen segundu batzutan, zera, ene jantzi luze zuria odolez blai...

Baina pasatu ziren soberazko segunduak eta piztia nire inguruan zebilen usainka eta usainka nire deus egin gabe. Egia errateko bere kurrinka piskanaka beldurgarri gutxiago egiten zitzaidala. Nekaturik banengoén nere posizioan belauniko minak jarraituz. Zapuzki begiratu nion basurdeari besoak burutik piska bat kenduz. Une hartan utzi zion kurrinkari mantsomantso nigana hurbilduz. Berriz babestu nuen ene burua zerbait bigun eta leunez ene belaun zaurituan ohartuz. Basurdearen mingaina zen benetan! Garbitu zidan zauria eta bere mingainaren eraginez odola gelditzen ari zen!

Hura zen miragarria! Mendi hartan ez nintzen sentitzen hain soilik eta hain galdu jadanik. Benetako laguna aurkitu nuen! Odola gelditurik, bere erizainaren papera bete ondoren, animalia ene ondoan etzanda geratu zen beroa emanaz. Oraindik piska bat beldurturik, dudamudatan bere bizkar latza laztantzen ausartu nintzen. Bota zuen kurrinkatxo bat bere poza adieraziz.

Biok lurrean iraun genuen ordu erdi bat edo eta nik lokuluxka egiten nuen momentuan tiroak gertu aditu ziren. Basurdea altxatu zen erne birak ematen larri hasiz. Hondarrean joan zen nire ondotik iratzeen artean desagertuz. Pena handia eman zidan. Ez nuen pentsatu ere gure laguntasunak hain gutxi iraunen zuenik. Berehala zakurren zaunkak aditu ziren alderdi hartan. Lasterketak eta garrasiak. Nire aitarenak ote ziren? Agian bai, baina ez nintzen poztu aurreuste samin eta garbi bat sartu bait zitzaidan bihotzean.

Ene inguruan zaunkak jarraitzen zuten gero eta errabiatsuago. Halako batean kurrinkekin nahastu ziren eta hondarrean tiro batzuk bukatu zuten iskanbila hura. Nire aitaren zakurrak nire ondoan agertu zirenez gero aitak agudo jakin zuen han nengoela eta niregana etorri zen. Besarkatu ninduen zer gertatu zitzaidan galdetuz. Ene negarzotinka izan zen erantzuna. Aita saiatu zen lasaitzen, baina alferrik. Ene basurde maitagarria eta laguna hilik erakutsi zidanean, zin egin nion ene buruari inoiz ez niola aitari kondatuko basurde eta bion arteko abentura. Sekulan ere ez nintzen berarekin ehizara itzuli, baina aitak oraino ez daki egiazko arrazoia benetan.

JOAKIN BALENTZIA



Arratsaldea erori zenean
begirada sinple batez, erahil izan behar genituen zapaltzaileak.
Haiek ziren alanbradaz eta sirena ziztuz kalea itxi zigutenak
Gure inpotentziak odola sutan jarri zigun
eta gure begiraden gorrotoak
sastagaiak bezala iltzatatzen ziren, behin eta berriro.
Gure herritik eraman dugu beti bihotza zabal zabalik
bilutsik, zeruko leuntasuna bezala
lur bustiaren berotasunez beteta
arnasa bat bezala
itxaropena urrun ikusten duen
abots bat bezala.
Gero kalea huts geratu zen
ahotsik gabe
irririk gabe
musurik gabe
maitasunarik gabe.
Zapaltzaileak, haiek dira, beti bezala,
jabetzera etorri dira
gerrako kaskoez
beren pistola eta porraz
kez, tiroz, gorrotoz eta balaz bete dute karrika.
Gure ahotsak gaur, ez du izanen ohiartzunik
Gaur gure irriak ezin genituen bateratu
oihu egiten genuen
maitasuna bakarrik gure artean geratu zen
gure herriaren ondoan
tiro asko bota arren ez gaituzte bereiziko.
Behin eta berriro indar guztiaz oihukatzen dut:
Madarikatuak izan daitezen lege guztiak, gobernu guztiak
eta horiek egiten dituzten politiko guztiak!
Madarikatuak izan daitezen
lurra esklabu egiten dituzten muga guztiak
eta pozik bizitzea eta maitatzea debekatzen dutenak.

Elkarrekin garaitu ahal izango dugu, egun batean
gure baldintza sozialean anai-arrebak bezala eta kalean
gure problemak zuzenean konpondu.

KALEA PRESOZ BETEA



hire helgabetasun deliziosa

Hire helgabetasun deliziosoa atsegin zeidan.
Hamasei edo hemezortzi urtetan diraun,
berdin zeidan.
Noizean behin horren kulpagatik
sufritu egin ditinat
neurrigabeko zalapartak, zentzurik gabe,
irudipen zorabiatuak,haurtzeloak ere.
Sorgin gaztetxo samarra haiz benetan,
baina hire barrea neskatxa fidakor batena dun,
egun askotako lorea, goizalde eguzkitsua;
hire gorputz disdiratsua, zabal eta freskua,
eta batez ere hire bizitzeko gura
oparo eta ikaragarriak
atsegin zeizkidan.
Orain dela gutxi, hau oinaze,
hogeitamar urte bete hituen
baina horrek ez din axolarik;
hilabetetako eta egunetako iraganbide
atxakigaitz eta monotonoa delako.
Hire odolan irakitzen din
mundu eragin batek, kolorezko ibaiak,
itsaso ilunbetsuak,
urratu gabeko lurrak,
mugatzeko mendi eta oihanak.
Maite haut adoleszente;
nahi nuke emakume bihur hendin
hirurogei urte edo izanen hituelarik.
Hire helgabetasun deliziosa
gustatzen bait zait.

JOAKIN BALENTZIA

hurbildu nindunan amildegiko ahoraino

Hurbildu nindunan amildegiko ahoraino;
han zegonan iluntasun gozoa,
bakartasunaren paradisua.
Eta hik lagundu nindun
bazter hartaraino,
loreak haizera jaurtikiz,
saltoka eta kantari.
Hura huen hainbat bilatu nahi nuen amaiera,
amildegiko aho beltzean,
eta hi ondoan irri egiten henbilen,barre fidagarriz;
munduko egia, denboraren zentzua,
hi haiz, sorgina,
eta ene geroa isolamendua.
Hiregandik kanpo, iluntasuna,
bakardadea ikaragarria dun.
Mundu ezagun bat bukatuko zela
somatzen dinat
hire bihotzaren taupadekin batera.
Ez naun beldur soilik izaterakoan
hi bizirik hagoela
edozein lekutan dakidan bitartean,
nire zain,
nire bila,
nitaz oroitzen,
baina arras hilik ez.

JOAKIN BALENTZIA

ESTER FERNANDEZ



Ene begiok zegizkiaten
errainu adoretsu eta suz biziak
ez dituk neureak
baizik hire sabelaren goriari
gaztetik
oraindik, umatu berria nindualarik
ebatsi nizkioan suziak;
hire gorritasun horreri
noizbait zurrupatu nioan
buztin odolduaren zuku hezea.

Ene zainetatik dirauen
horlegi likistua ere, ez duk nerea
nahiz nere eraietan zingurriturik iraun
baizik hire terziopeloaren orrazea;
goiz garraizi batez hire bularraren
diti puntari
lardaskatu nioan beharrezko esnea.

Eta ene ahotik lehertzen dituan
DORRE loratuak ere
ene soinean lozorroan datzan
uso itxuradun dorrearenak bailiren,
horiek ezta ere
ez dituk nere eztarritik labaintzen
hire erreka ezkutuen hasperenetatik bainan.

Gotzone

Katu beltz bat ikusten dut,
bere soinekoa garbitzen nere malkoen urakin.
Baita bere edertasunaren eguzkiak lehortzeko,
zabaltzen gero.



Egitan, nere begiak dituenez,
iturriko urak ez ditu behar.
Ezta eguzkien izpiak ere, ez ditu behar,
bere aurpegiak daukan edertasunaren jabe denez gero...

LOTSATI

Bidasoari

Jaiotzatikan garbia zera,
gardena eta txukuna,
zure uretan isladatzen da
ondoan gertu dezuna.
Mirestekoa ere da zure
bihotzaren ontasuna,
miragarria benatan dela
zuk dezun edertasuna.

Zuhaitz bitxiak,zelai xarmantak,
horrela bide osoa,
eta ertzean ere daukazu
mendia eta basoa,
ingurunea polita dezu
ta bidea erosoa,
denetik zera zu ederrena
bihotzeko BIDASOA.

Mendi altutan ur tantatxo bat
izanik, dezu jaiotza,
Elizondo ta Mugairetikan
ura oraindikan hotza
gero Sunbilla, Igantzi, Bera
pasatzeko ez dezu lotsa,
Nafarroatik iragaitean
pozik daukazu bihotza.

Hiltzoria hor daukazunean
sartzen zara Txingudira,
Hondarribia, Hendaia eta
Iruni zaude begira.
Alde honetan Ipar ta Ego
bi zati egiten dira,
horregatikan negar malkoa
etortzen zaizu begira.

Arrazoi honek zure bihotza
tristetzen dizu den dena
zikintzen dute motibo gabe
hain dina dezun izena,
Endarlazara sartzerakoan
ia ez dezu almena,
zikina zatoz ez ikusteko
zure lotsa eta pena.

Penagarria benetan dela
hemen daukazun jarrera
bainan indarrez jarri zintuzten
nahiz ta zu egin atzera,
errua ez da zurea eta
jarraitu lasai aurrera
banatu bainan ere dituzu
elkartzen biak batera.

Zure izena leku askotan
gelditu dela ni nago
zenbait errege ta erregina
ta beste zenbait gehiago
ondoan izan dituzulako
duzu ohore haundiago
garrantzi hauxe duen ibairik
munduan gutxi badago.

Bukaera bat emango diot
hemengo bertso lanari,
eta ez dakit hau ikusirik
izango al dudan sari,
nire asmoa bakarrik bat da
kantatu Bidasoari,
ta bertso hauek beretzat dira
munduko politenari.

LAPURRA

Pello Otxoteko Bakero (15 urte) IRUN.

Gure Txokoako 1985ean ospatutako bertso paper lehiaketan lehen saria.

zergatik beratarrek ez dute gehiago parte hartzen herriko martxetan

Gizakiak ekintzetara mugitzen duen indarrak zeintzu diren jakiteko, unibertso guztia zerk mugitzen duen jakitea bezain zaila da. Sikologia, soziologia, historia eta bertze zientzi sail bat badire, zabal gai hau ikertu dutenak. Badira baita haunitz irakurri eta ikasi dutenak, gizonemakume jakintsuak, batzuk gure inguruan bizi direnak. Ni "biziaren" eskolean ikasi dudanarekin bakarrik, pinpilipauxak bezala gai honen gainetik saltu batzuk egitera saiatu naiz.

Hau da elkarri egiten diogun galdera edozein bileretan, betikoak biltzen garenean, aintzinetik lanaz itoak gaudenak, eta denbora faltan konpromezu berriak hartu ezin dugunok: Zergatik ez dute beratarrek parte hartzen sozial mugimenduetan? eta batez ere gazteak, non daude gazteak? Gaitza bat dela diote batzuk, denan barna zabaltzen ari dena, bizitzeko sistema honek dakarrena. Bertzaldetik gaitza hau, Europa osoan agitzez latzagoa da Euskal Herrian baino, bakoitzak bere lana egin, eta bertzeak "hor konpon Mª Anton".

Baina zehaztu dezagun afera hau gure herrian: zortzi ordu egin behar duenak egunero, nekatzeko nahiko badu, noski, ondotik etxean ere zerbait izaten du beti egin beharra; gero zerbait "hobby" edo gustoko zerbait egiten edo lasai egoten lagunekin, ia etzaio gehiago denborarik gelditzen egunak duen 24 orduetan. Zerbait horrela ere gertatzen da ikasten ari diren gazteekin, oraindik estuago dabiltzala erran daiteke, batez ere azterketen denboretan, gero eta gai gehiago menderatzea eskatzen bait zaie. Langabezian daudenak, edo segurtasun ekonomikorik gabe daudenak, egoera horrek dakarren ezgauzatasunaren konplexuarekin eta bertze, nahiko lan badute heuren buruarekin. Zer erranik ez etxekoandreek lanerako duten orduez, goizetik arratsera familiaren zai egon behar, heuren buruentzat tarte bat harrapatu ezin dutelarik.

Alde batetik hauek denak ikusita, ber-

tzaldetik ikusten dugu baita ekintza sozialak (ekologia, euskara, emakumea, ohiturak, osasuna, kultura, ELKARTASUNA) behar direla.

Giizakia elkarrekin bizitzeko beharra dueela eta ito egiten dela bakarrik garbi askki dago.

Beeno, norbaitek erranen du: Beran ari dire elkarte sail bat: Lanbide Eskolan, Eskkola Publikoan, Ikastolan, Aspacen, Sagrado Corazon ikastetxean; Gure Txokoan, Ehiizturi eta Mendizaleen Elkarteak ere hor daude, irratia, AEK, Oinarrizko Komunittateak; kanpainak egiteko ere, jendea jumtatzen da, OTANen aurka, Euskara Guztiona eta Guztiontzat etabar.

Halla ere, erantzungo dio bertze batek: Gurren, gazteen alde egin behar da, ikastettxeetan egitazko emakume eta gizonak izaatera irakatsi behar da, eta euskaraz; herrriko zaharrak arront baztertuak daude; gurre mendi eta errekak jeitxun babesarik gabe daude, errepresioari erantzuna eman behar zaio.

Hoie deneri, irtenbide politikoa eman behar zai . Norbaitek erranen du: arazo hauei irtenbide politikoa eman behar zaie.. Baina horren esperoan patxaran egotea, ez dela bidezkoa argi dago, gehienetan batzuren interesak denen kontra jokatzen bait dute horrelakoetan.

Hauek denak garbi baditugu, berriz ere galdera: Zergatik ez dugu parte hartzen herriko mobidetan? eta alferkeria, pertsonalismoak, beldurra, ahuleria, entendimentu motz eta kaskagogorra izateak zer ikusteko dute? Nere ustean, gaitzaren zaina nonbait hemen dago.

Eta hauentzako botika zein?

Akaso sikologian, soziologian, erantzuna bilatu behar?

Norbaitek dio, elkarrekin afariak egin behar direla.

Bertze norbaitek ekintza kulturala gehiago behar dela.

Badire baita, sexu, droga eta Rok and Roll dutenak.

Beno behar den erantzuna aurkitu baldin banu, ez nintzen hau idazten ariko eta kalejira haundi batean dantzatuko genuke beratar guztiak eskutik lotuak elkartasunaren dantzan.

JUANINAZIO LANTX

TARTA GOXO-GOXO BAT

Osagaiak:

-Ron edo koñak pixka bat
-Lau sagar erregineta
-Esne gaina katilu bat
-Laranja baten zumoa
-Sei arraultza
-Altxagarri sobre bat
-Ogi irina, zortzi goilara
-Maizena bi goilara
-Eta zortzi goilara azukre

Egiteko modua:

Sagarrak zuritu eta txikitu ondotik, jarri ontzi batean gurina, laranjaren zumoa eta kañakakin batera. Pixka bat egiten direnean, atera eta utzi hoztutzen. Arraultze gorringoak nahastu azukrea, gaina eta laranja zumoa, irina eta altxagarria. Hau ongi batituz gero, nahastu sagarrakin. Gero arraultzeen xuringoak elur puntura batitu eta nahastu denari.

Ontzia gurinaz igurtzi eta labean sartu. Ah! eta labea ez jarri su fuerteegian.

ON EGIN DIEZAZUELA!

asmakizunak



1. Hutsa xutik ezin egon eta betea nola nahi egoten.
2. Jaun bat zango baten gainean eta txapela buruan.
3. Ikusten dut, ondoan dut eta ezin hatzeman'
4. Dena bide, dena bide eta orgarik ezin pasa.
5. Lau iturri mendi baten azpian.
6. Mundu hontako deabrurik handiena.
7. Bizkarra aintzinean, sabela gibelean.
8. Komentu baten barnean lau ahizpa'
9. Zuhaitz gorenera igaiten ahal eta ur ttipíenean ez iragaiten.
10. Eginerazten duenak ez du beretzat, ezta egiten duenak ere; eta jabe behar duenak ez daki beretzat duela.
11. Beti bertzek jazten ari eta bera beti biluzik.

1. zakua
2. ondoa
3. itzala
4. teilatua
5. behi errapea
6. dirua
7. azala
8. intxaurra
9. xinaurria
10. hilkutxa
11. orratza

ATSOTITZAK

-Odola: ehun idi pare baino azkarragoa.
-Bertzeen minak hatx? gutxi.
-Arrosen ondoan dagonak, haren usainetik zerbait hartzen.
-Lasto su, laster su.
-Keari ihes egiteko, ez sar suaren erdian
-Iguzki berak horma urtzen eta buztina gogortzen.
-Ondu gabe, fruitu guztiak kirets.
-Emaztekiak itzala iduri: segi ezazu, ihesi doa; ihes egiozu, ondotik duzu.
-Andreak pipari, adios etxeari.
-Atso zaharra milinfrin, hire bentak egin din; hortzak ere joan zizkin, deabru zahar bat dirudin.
-Erraiten duenak behar ez dena, entzun dezake nahi ez duena.
-Ixiltzen dakienak, aski daki.
-Hitz gutti eta hek onak.
-Hitza ahotik atera baino lehen, bi buelta emazkiok mihiari.
-Bertze ama ona, norberea ainitzez obea.
-Aurrak hazi, nekeak hasi.
-Aurrak ez badu nigarrik, ez dik edanen titirik.
-Etxean ikusia, umeak ikasia.
-Soldadua, amaren seme galdua.

droga «hemen bizi da» (2.)



"Porroa":

Porroaren inguruan dagoen guzia aztertzea garrantzitsua da. Egiten duen kaltea toxikoa baino soziologikoagoa da, toxikoen artean ez bait da alkohola bezain kaltegarririk. Beraz, benetazko arriskua "drogaren soziologian" datza.

"Porroa" kontsumitzea eta legestatzearen aurka baldin banago horregatik da. Nere ustez, harresi hori kentzen badugu, honekin batera "porroa" erretzeak suposatzen duen arauen aurkako desafioa desagertaraziko genuke eta honen ondorioz, gaztearen gizartearekiko enfrentamenduan agresibitatea areagotuko litzateke eta desafioaren helburua droga gogorragoa litzateke.

Beraz "kostoa"ren trafikoa sozializatzea, nere ustez okerra izan daiteke, areago, porro kontsumoari "brida askatzea" "zaldia" jomugara azkarrago hel dadin laguntzea izan daiteke.

HEROINA

Heroinomanoa jabetu egiten da "txute" gorputzaren narriadura eta ezabapena azkartzen duenaz. Badaki "infinitua" eta "hutsaren zuloa" somatzera "ausartzen" direnen artean hepatitisa ugari dela, baita sobredosisa eta buruhiltzea (gero eta maizago).

Guzti honek bultzatzen ditu heroi eta biktimaren artean dagoen jarrera sozialera eta sentimentu horrek sortzen du heroinomanoarengan bere buruarekiko oso irudi ona. Egoera honek, edozein terapiaren bidez sendatzea oso zaila egiten duelarik. Zeren eta, murgilduta dagoen "autosufizientzia"ren pareko kontrapartidak eskatzen bait ditu.

"Piko"ari ekitea "yonki"arentzat bihurkeria antisoziala da. Abentura eta zorabioa bilatzen ditu, heriotza edo paradisuaren aurrean heroi funanbulaz egiten da.

"Yonkia" maila sozial guztietatik sortzen da. Honengatik heroinarekiko duen erlazioa ez da menpekotasuna bakarrik, eragintza ekonomikoa bihurtzen da ere.

Bilakaera:

Heroinomanoak, gehienetan, "camello" bihurtzen dira, hain zuzen ere proselitismoari ekiten diote, heuren abastua ziurtatzeko merkatua hedatu behar dutelako.

Honek zirkulu bat sortzen du, zirkulu hau hasten da heroinomanoak droga erosten duenean; droga saltzen du, droga jaten du, drogatik jaten du eta azkenean drogak jan egiten du bera.

Zirkulu ikaragarri eta makabro honek, espainol estatuan 140.000 milioi pzta. baino haundiagoa den potentzial ekonomikoa sortarazten du. Horren altuak diren zifra horietara heltzen da, drogak jatorrizko prezioa ehunera biderkatzen bait du. Honek, "Yonkia" delikuentziara bul-

tzatzen du.

Delikuentziak gertzelari aldizkako ikustaldiak egitea dakar eta han mota guztietako delikuenteekin erlazionatzea. Horrela, denbora pasata gero, "yonkia" armatua aurkitzen dugu eta delikuentea berriz, drogaren munduan sartua.

MERKATUA;

Drogaren merkatuan trafikante txikien papera ez da horrenbeste ekonomia mailakoa, baizik eta haien "lana" honetan dago: droga batzuetatik besteetara pasatzen laguntzean. Arrazoia da trafikante txikiak ez daudela (gehienetan) droga bakar batetan "espezializatuta", zeren kontsumitzaileari haietako edozein eskeintzen bait diote.

Garbi dago, droga ezlegalen merkatuak garrantzizko papera jokatzen duela "gazte biolentzia" deitzen dutena sakabanatzeko. Izan ere, sistema honek, etorkizun sozioprofesional iluna duten milaka gazte, boterearekin gatazkan dagoen unibertso baten aurrean paratzen bait ditu eta hau zirkuitu ekonomiko batekin lotzen da neurri batetan haien bizitzan dauden behar eta miseriak "estaliz".

HELBURU SOZIOLOGIKOA:

Honengatik argi eta gerbi zera esatera ausartzen naiz: hau dela estatu espainolean "benetazko boterea"k erabiltzen duen sistema, bere instituzioen bidez gizarte zati baten portaera, kimikoki "kontrolatzea iritsiz.

Bereziki, Euskal Herriari aplikatuz honetan bihurtzen da, sistema honen lehen helburua: Euskal Askapen Nazionalerako Mogimenduarekin lotura duen gaurko gazteak eta datozenak, deslotzea eta baztertzea.

Beraz, etsaiak erabiltzen dituen metodoak kontutak hartu behar ditugu. Bakarrik, etsaia eta berak erabiltzen dituen armak ezagutuz, burrukatu ahal dugu, garaitzeko posibilitateaz.

Arazoa kalean dago. Hemen bizi da. Euskal Herrian. Bakarrik guk, prest bagaude konpodu ahal dugu. Oraingoz...

J. Etxebeltzea.